

**2020KO AZAROAREN 26AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita sei

**HILABETEA:** Azaroa.

**URTEA:** Bi mila eta hogei.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa.

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** AITOR ALDASORO ITURBE

**BILDUAK:**

EAJ-PNV

- AITOR ALDASORO ITURBE
- LEIRE ARTOLA UGALDE
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR

- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ

- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE

- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES

- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

**IDAZKARIA:** ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran, LURDES ALEGRIA LASA kontuhartzaileak ere parte hartu du.

### **1.- AURREKO AKTA.** 2020-10-29

Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

### **2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**

a.- UDALAK KUTXABANKEKIN FORMALIZATUTA DUEN MAILEGUA ALDEZ AURRETIK AMORTIZATZEA. 2020EKBO0069

Alkatea jaunak Antolakuntza batzordeko proposamenaren berri eman du:

#### **"LEGEDIA**

*Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 22. artikulua bere e) atalean xedatzen du Udaltzataren eskumena izango dela: "Zerga-izaerako baliabide propioak zehaztea; aurrekontuak onartzea eta aldatzea, eta bere eskumeneko gaietan gastuak xedatzea eta kontuak onartzea; hori guztia Toki Ogasunak Arautzen dituen Legean xedatutakoaren arabera."*

#### **AURREKARIAK**

1.- 2004ko abenduaren 23an 7.000.000,00 euroko hasierako kapitalarekin eta 20 urtetan amortizatzeke formalizatutako kreditu eragiketaren ondoriozko zor bizia, 1.804.542,56 eurokoa izango da 2020ko abenduaren 31n.

2.- Diruzainak eta Kontuhartzaileak egindako txostenak dionaren arabera, aurrerantzean, banku-kontuetako eskudirua, frankiziaren zenbatekoa gaitzen badu, hiru hilean behin ordaindu beharreko finantza-kostua sortuko du

Honako hauek kontuan hartuta:

- Kontu korronteetan eta eperako gordailuetan dauden funts likidoak 17.521.874,07 eurokoak dira, eta gastu orokorretarako gerakina 10.465.918,14 eurokoa.

- Zenbateko horiek aparteko jarduerak egiteko aukera ematen dute, udalaren oreka ekonomikoa arriskuan jarri gabe.

- Aurrerantzean, banku-kontuetako aurrezkiek finantza-kostua sortuko dute.

Antolakuntza batzordeak Udalbatzari egiten dio ondorengo

### PROPOSAMENA

Lehenik.- Udalak Kutxabank erakundearekin formalizatua duen eta gaur egun 1.917.326,47 euroko kopurukoa den maileguaren aurretiazko kopuru guztiaren kantzelazioa baimentzea, dagokion kreditu aldaketa onartu ondoren.

Bigarren.- Alkateari baimena ematea aurreko puntuan xedatutakoa burutzeko.”

Hiz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek jaso dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “En la situación que estamos ahora pagar esa cantidad nos parece excesivo, pero en la situación que estamos ahora estamos de acuerdo porque la economía del Ayuntamiento está saneada y a la larga nos reportaría más gastos al tener que pagar intereses.”

Beasaingo EH Bilduko bozeramaileak ere esan du ados daudela proposamenarekn.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

#### b.- KREDITU ALDAKETA:

- 4. Kreditu Gehigarrien Espedientea. 2020CRAD0004

Ondorengo proposamena ezagutzera eman da:

#### “GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

| Aurrekontuko<br>kontu saila/ Partida<br>Presupuestaria | Kontzeptua / Concepto              | Kredituak / Créditos  |                               |                                 |
|--------------------------------------------------------|------------------------------------|-----------------------|-------------------------------|---------------------------------|
|                                                        |                                    | Egunoak /<br>Actuales | Aldaketak /<br>Modificaciones | Behin betikoak /<br>Definitivos |
| 0110.933.011.00.01                                     | Maileg. Amortiz./Amortiz. Préstamo | 451.135,64            | 1.804.542,56                  | 2.255.678,20                    |
| <b>GUZTIRA / TOTAL</b>                                 |                                    | 451.135,64            | 1.804.542,56                  | 2.255.678,20                    |

**KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

| <b>Sarreraren kontzeptuak edota gastuen kontu-sailak / Conceptos de Ingresos y/o partidas de Gastos</b> | <b>Baliabidearen kontzeptua / Concepto del recurso</b>                               | <b>Sarrera handiagoak edota gastuetako bajak / Mayores Ingresos y/o Bajas en Gastos</b> |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------|
| 870.01                                                                                                  | Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina/<br>Remanente tesorería gastos generales | 1.804.542,56                                                                            |
| <b>GUZTIRA / TOTAL</b>                                                                                  |                                                                                      | 1.804.542,56                                                                            |

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez ondorengoa onartu da:

1.- 4. Kreditu gehikuntzen bidez 1.804.542,56 euroko zenbatekoaz eta kreditu gehigarrien guztiz finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.

- 18. Kreditu Gehigarrien Espedientea. 2020CRAD0018

Ondorengo proposamena ezagutzera eman da:

**“GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA**

*Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek*

*finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.*

| Aurrekontuko kontusaila<br>Partida<br>Presupuestaria | Kontzeptua<br>Concepto                   | Kredituak<br>Créditos |                          |                             |
|------------------------------------------------------|------------------------------------------|-----------------------|--------------------------|-----------------------------|
|                                                      |                                          | Egunoak<br>Actuales   | Aldaketa<br>Modificación | Behin betikoa<br>Definitivo |
| 0350.601.134.10.01                                   | Irigarrit.: Nafarroa etob. Eta Oriamendi | 100.000,00            | 221.760,34               | 321.760,34                  |
| <b>GUZTIRA / TOTAL</b>                               |                                          | 100.000,00            | 221.760,34               | 321.760,34                  |

**KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

| Sarrerren kontzeptuak              | Baliabidearen kontzeptua                  | Sarrera handiagoak |
|------------------------------------|-------------------------------------------|--------------------|
| 870.01                             | Gastu Orokorretarako diruzaintzako gerak. | 221.760,34         |
| <b>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b> |                                           | 221.760,34         |

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez ondorengoa onartu da:

- 1.- 18. Kreditu gehikuntzen bidez 221.760,34 euroko zenbatekoaz eta kreditu gehigarrien guztiz finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea.
- 2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.

c.- ALDEZ AURRETIK "EZ-ERABILGARRI" DEKLARATUTAKO 2020KO AURREKONTUKO KREDITUA "ERABILGARRI" BIRJARTZEA. 2020EKBO0045

Ondorengo proposamenaren berri eman da:

*"AURREKARIAK:*

*1.- 2020ko uztailaren 30eko osoko bilkuran, "Kreditu ez-erabilgarrien" adierazpena onetsi zen, 936.928,62 eurokoa.*

*2.- Udal kontu-hartzaileak txostena egin du adieraziz, egungo osasun-krisiaren eragin ekonomikoa dela eta, 9/2020 Foru Arauak eten egin duela 2020 eta 2021 ekitaldietarako zerga-arauak betetzea. Horrek esan nahi du ez dela beharrezkoa aurrekontu-egonkortasunaren, finantza-jasangarritasunaren eta gastu-arauaren helburuak betetzea.*

*Horiek horrela, eta kontuan izanik aipatutako "kreditu ez-erabilgarrien" adierazpena ekitaldia ixtean, 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako etenda utzi diren zerga-arauak betetzeko hartu zela, Udalbatzari honako hau aurkezten zaio*

*PROPOSAMENA*

*Udalbatzak 2020ko uztailaren 30ean hartutako erabakiaren bidez atxikita geratu zen 936.928,62 euroko aurrekontuko kreditua "erabilgarri" birjartzea."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

d.- 2021. EKITALDI EKONOMIKORAKO UDAL AURREKONTUA. HASIERAKO ONESPENA. 2020EKBO0070

Alkate jaunak (EAJ-PNV): Aurkezten den aurrekontua aurrekaririk gabeko shock inguruan egindako aurrekontua da, hain zuzen ere, pandemiak eragindako krisi ekonomikoaren ondorioz ematen dena. Hori dela eta Foru Aldundiak Foru Dekretua onartu du. Ekainean hasi ginen aurrekontua lantzen, baina azkeneko astearte ez du eraginik izan Foru Dekretu horrek. Jarri diren hainbat puntu kostu errealari ez dira egokitzen. GOIEKlren testu ingurua dela eta gure gastuak mugatuta ditugu eta gerakinetik tira egin beharko dugu. Hiru gai azpimarratu nahi nituzke, hau da, aurrekontuak estali nahi dituenak. Alde batetik enplegua eta langabezia: pasa den legealditik Goierri Eskola eta Goiekirekin tiraka ari gara enplegu eta langabeziari buelta emateko. Hil beltzen 500 bat pertsona bagenituen Beasainen langabezian, egun ea 700 pertsona daude. Horrek esfortzu bat eskatzen du eta zentzu horretan EH Bilduk ere ekarpena egin du. Nahiz eta beharrak motzean izan, diagnostikoa egiten hasi dira. Kopuru bat jarri da eta beste gaiekin pasatzen ari zaigun bezala kopuru horiek aldatzeko malgutasuna izan beharko genuke. Beste alde batetik herrian elkarrekin gure egunerokotasuna markatzen dutena, hau da, jardun horiek mantendu egin behar dira herriari nortasuna ematen dielako eta horri eustea izan beharko luke helburua. Aurrekontuak horri begiratzen dio. Horren adibide, igeriketa edo arku tiraketa izan daitezke adibide. Kasu batzuetan diru laguntza bikoiztu egin da beraien beharretara egokitzeko. Hirugarrena, ongizatea da. Gai honetan gainontzeko taldeek ere ekarpenak egin dituzte. Daukagun aurrekontu estrukturalari erantzuten die. Estruktura hori baliatu beharko dugu, gaur egun bazterrean egon daitezkeen jendeei irteera eman

eta laguntzak emateko, baina ez pandemia dela eta, baizik eta laguntza horiek ematen jarraitu ahal izateko. Nik uste dut guztiok gaudela bazterrean ez uzteko gogoarekin eta aurrekontu honek ere horri erantzuten dio. Kiroletan eta kulturean, aurrekontuak laguntzak mantentzea bultzatu du. Horrez gain, kiroldegian aireztapena jarriko da, ez dagoen gela batean, taberna berria ere egin nahi litzateke. Goiener-ekin ere eta EH Bilduren eskutik lantzen ari gara plaka fotoboltaikoak jartzeko. 2020a erabili dugu proiektuaren bideragarritasuna ikusteko eta aurrekontutan 1.000 eko kontusaila aurreikusi bada ere, badakigu ea 300.000,00 € kosta dakiokeela Udalari. Landu beharrean gaude baina gauzatzeko asmoarekin. Kulturean indarra eman nahi zaie hainbat ekitaldiei: Igartza musika, antzerki garaia, dantza tradizionala, erakusketa aretoa Usurbetik atera egin nahi da eta erdi gunean jarri eta Igartza multzo monumentuan mantenu eta txukunketa lanak egin nahi dira. Hirigintzan, Oriamendi kalea berrasfaltatu behar da, natur bideak egiteko ere baditugu (Indar-etik anbulatoriora erreka bestalde doana, erreka indarrean jartzeko helburuarekin eta bestea San Martindik Erauskinera doana). S. Inazio kalearekin ere proiektua enkargatzeko asmoa daukagu eta bonberiarekin ere (UARaren argi berdea izan da), dantza.eus elkartearekin lantzen ari gara dantza tradizionalako gune izateko asmoarekin. Hizkuntza politikan, aparteko sentsibilizazio bat landu nahi genuke. Topagunearekin hizketan ari gara hori gauzatzeko, begirale ikastaroa ere bai eta GARABIDEREkin ere hitzarmena mantentzen dugu. Zerbitzuetan, urtero bezala asfaltatu kanpaina, Murumendi eskolan zorua aldatuko da eta Zaldizurreta atzean asfalto jartzeko asmoa dago. Arantzazu kalean berriz, ranpa jarriko da. Merkataritzan on-line plataforma lantzen ari gara GOIEKIREn eskutik eta paisaia euskalduntzearekin jarraituko dugu. Bonoak eta dirulaguntzak orain arte bezala emango dira eta lokal berriak irekitzeko sustapenarekin jarraituko dugu. Berdintasunean, zaintzarako dirulaguntzak planteatzen dira, transzikloa, jabetza eskola eta aurretik dauden hainbat ekimenekin jarraituko da eta aurten martxan jarri dugun azaroko lehiaketa errepikatzeke asmoa dago. Gazterian, diagnostiko zorrotz bat egiteko konpromisoa hartu dugu, EH Bilduren ekarpen bezala. Diagnostiko horrek ematen duena gauzatzeko. Berdin pasatzen da, mugikortasun mahaiarekin. Hau da hartzen dituen erabakiak gauzatzeko konpromisoa hartzen da eta kontusail bat aurreikusi da. Guztira aurrekontua, 16.631.601 €koa da, proposatutako aurrekontu gehikuntza egitea ahalbidetuko duenez, garrantzitsua da adieraztea gaur aurkeztu diren kreditu aldaketak onartu ondoren diruzaintzako gerakina ea 8 milioi eta erdikoa izango dela. Horrek berretsi egiten du gure ogasunaren egoera ekonomikoa ona dela. Horrez gain aipatu URA Agentziarekin eta CAF enpresarekin dugun hitzarmena dela eta 900.000 €ko ekarpena egiteko konpromisoa dagoela. Jakitun gara bai CAFek eta baita ere Jaurilaritzak 2021eko aurrekontuetan sartu dutela Ezkiaga auzoan uholdegarritasuna saihesteko inbertsioa. Diruzaintzako gerakina erabiliko da dagozkien kreditu aldaketak eginez.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Las propuestas que nosotros hemos presentado para el presupuesto de 2021, son propuestas dirigidas a la recuperación económica para recuperar los efectos del COVID, entre ellas, ayuda directa de entre 1.000 y 1.300 €, para autónomos y microempresas. Queríamos lanzar como una medida complementaria a las ayudas del Gobierno Vasco dirigidas a la hostelería, para que los comercios no quedaran al margen de este tipo de ayudas. Ayudas para gastos de mantenimiento de luz, gas,...etc. Ayudas para sistemas de climatización y ventilación para locales comerciales, pero se nos ha dicho que éstas están recogidas en las ayudas para EPIs. Ayudas para medidas de sostenibilidad: punto de recarga para coches en Igartza Oleta, diversos aparca bicis en el parque Iturralde, Zaldizurreta e intermediaciones de Bideluze y el frontón Ezkiaga, instalación de puntos de recarga para bicis eléctricas en el plideportivo, en la estación

y en el frontón Ezkiaga. Finalmente la instalación de totem de herramientas en el polideportivo, en la estación y en el frontón Ezkiaga. Entendemos que estas propuestas se tomarán en cuenta y discutirán en la mesa de movilidad.

También hemos presentado propuestas para renovación de parques y jardines: renovación de la zona ajardinada de Garin, instalación de un suelo en el parque de Mariarats (se instaló el año pasado, pero está inacabado) y en el parque Ixabel Olano, la instalación de un baño..

Así mismo incrementa puntos de iGunea en Ezkiaga y en Igartza para personas que tienen problemas de accesibilidad.

Propuestas de interés general: instalación del punto wifi gratuito en el nuevo hogar del jubilado, reforma de aceras de calle Karobi y estudio para mejorar el flujo peatonal en la rotonda de Zaldizurret para acabar con problemas actuales en la hora de entrada y salida de estudiantes y trabajadores del Beasaingo Institutoa ( a estudiar en la mesa de movilidad).

Respecto de la explicación facilitada por el Alcalde, echamos en falta los diferentes proyectos que se habían aprobado, pero se están estudiando para llevarlos a cabo. Por ejemplo, accesibilidad a Mateo Mujika y Arantzazu. Estamos a favor de que se haga la rampa porque nosotros eso lo presentamos el año pasado con ahínco.

En coherencia con la crítica realizada el año pasado decir, que el presupuesto que se presenta no es real. Continuamente hay modificaciones de presupuesto. Es verdad que la economía está saneada y que con la modificación aprobada por Diputación tenemos mayor capacidad de endeudamiento, pero aún así existe cierto grado de opacidad. Son cantidades simbólicas y no se recoge una previsión real de inversión y de gasto.

En cuanto a los sueldos políticos hay un incremento de 80.000 €, que pensamos que es por el aumento del número de liberados. Antes votamos en contra de algunas liberaciones y no estamos de acuerdo con este aumento.

Ayudas por el COVID. Son ayudas simbólicas. Se prevén 50.000 €. Sin embargo, eso sólo es lo que se prevé para las terrazas. Entendemos que el montante de estas ayudas se pueden modificar al objeto de impulsar el crecimiento económico, porque el gasto será mayor.

Con todo ello el partido socialista de Beasain, decide abstenerse porque creemos que hay que seguir colaborando para hacer frente a la crisis económica provocada por la COVID y para poder seguir desarrollando los proyectos de gran interés.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Aurrekontu hauen balorazioa egiterakoan hiru zutabetan oinarrituko dugu gure balorazioa. Jabetzen gara, zein egoeratan egin den aurrekontua, urte berezia izan delako: pandemia egoera, azken orduko arauaren aldaketa, etab., baina somatu duguna da aurreko urteko hainbat xehetasun aurten ere errepikatu direla, adibidez, urtean zehar egin diren kreditu aldaketak, kontratu txikiaren erabilpena eta herritarrei benetako informazioa ematea oztopatzea. Aurten urte berezia da, baina iaz ez zen berezia eta horiek eman ziren. Iaz ere salatu genuen aurrekontua osatzeko erabiltzen den metodologia. Hori saihesten arren udal gobernuari kronograma bat aurkeztu genion. Orain ikusten ari gara Madrilen nola negoziatzen diren aurrekontuak. Gobernuak proposamen itxi bat aurkezten du eta emendakin partzialak edo totalak aurkezten dira. Hemen beste mekanismo bat erabiltzen da aurrekontuak osatzeko. Iaz ere salatu genuen eta aurten

gehitu egin da herriari suposatzen dion gastu politikoa. Ea 400.000 €ko gastu politikoa suposatzen du aurrekontu hauetan, Antzizar kiroldegia adinako aurrekontua, hain zuzen ere edo beste modu batetara konparatuta, euskaltegia, musika eskola, gaztedia, landa eremua, ingurugiroa eta partehartze, migrazioa eta berdintasun sailak batuta adinako kopurua osatzen duen gastu politikoa. Hasieratik daramakigu salaketa hau egiten eta orain ere mahai gainean jarri nahi dugu. Hori orokorki begiratuta eta gu ados ez egongo ginatekeen puntua. Prozedura aldetik zerbait aurreratu dut. Badaude hainbat lege, herritarren partehartzeko aukerak zabalik uzten dituztenak. Bada garaia herritarrek ere kontu hauetan, parte hartu ahal izatea. Legeak hau ahalbideratzen dutenak badaude eta aztertu egin beharko genuke, hori gauzatze aldera. Hiru bat bilera izan ditugu gobernu taldearekin aurrekontuak lantzeko eta positibotzat ematen ditugu. Gure proposamenak gauzatu ditugu. Udalaren asmoen berri ere jakin dugu eta gehiago edo gutxiago kontzeptu batzuk txertatu dira aurrekontuan. Positibotzat ere jotzen dugu urtean zehar jarraipena egiteko mekanismo bat jartzeko, lortutako adostasuna. Aurrekontuak osatzea gauza bat da eta bestea, jarraipena egitea eta jartzen diren lerroak betetzen diren baieztatzea. Eduki aldetik, guk hiru blokeetan banatu genituen gure proposamenak: bat pandemia dela eta ongizatera bideratutako laguntzak, birgaitze planak (hemen esan zaigu 2020koak aurreratu nahi direla) eta hirugarrena herri onurarako proposamenak. COVID-en inguruan zaintza lerroa sartu da, eskolaz kanpoko jardueretan inolako diskriminaziorik izan ez dadin herriko nerabe eta gazteentzat laguntza lerro bat sartu da, larrialdiei erantzuteko ere laguntza proposatu zen eta jasota dago. Autonomo eta mikroenpresetako dirulaguntzak emateko diagnosia egitea esan da (guretzat bat dago tartea laguntza horiek indartzeko orain ere). Guk nahi bezala jaso es direnak: eskolako materiala erosteko laguntzak (egia da beharrak detektatu egin beharko direla), ikastetxeei sortutako beharrak. Hemen esan zaigu hezkuntzatik bideratzen direla. Beraz, proposatu da 6 eta 16 urteko ume eta nerabeentzat dohaineko musuko kanpaina egitea. Badakigu horrek zer suposatu dezakeen, eta 15.000,00 €ko aurreikuspena planteatu genuen. Hori, horrela behintzat, ez da jaso. Beste gai bat luze eztabaidatu genuena izan da, oinarritzko beharretarako laguntzak. Egia da laguntza estrukturalak daudela, baina denok jakitun gara konfinamendu garaian, ERTE egoerarekin egon diren prekarietateak. GLLak kobratzeko baldintzak betetzen ez dituztenek hainbat behar izan dituzte. Horretarako 80.000,00 €ko kontusaila planteatzen genuen oinarritzko beharrak asetzeko: ura, gasa, etxebizitza, alokairua. Uste dugu behar batzuk egon daitezkeela eta udalak pauso batzuk eman beharko lituzkeela. Azkeneko puntua da Gizarte Segurantzak kotizazioan, erregimen berezian dauden etxeko langileena. Hauek ez dute langabezia eta beste hainbat eskubiderik. 15.000,00 €ko lerroa planteatzen genuen. Herri onurarako proposamenetan berriz, hauek jaso dira: mugikortasun mahaiaren ondorioak jasotzeko baliabideak, azokan kabina batzuk jartzea, markesinak berritzea, euskara ikasteko laguntza eta kultur sorkuntzarako laguntza. Azken honetarako 15.000,00 €ko lerroa onartu eta jaso egin da. Gu nahi bezala aurreikusi ez direnen artean: gaztedian 15.000,00 €ko partida jarri da diagnosia egiteko (guk 150.000,00 €ko planteatzen genuen, gure ustetan desaktibatuta dagoen sailaren berraktibazioa behar da), energia jasangarria (guretzat proiektu hauek kontusail indartsu batekin aurreikusi behar dira. Konpromiso serio bat egiteko aukera galdu da), amiantoari buruzko inbentarioa egitea planteatzen genuen. Esan zaigu egina dagoela eta bermatu dela eraikin publikoetan ez dagoela. Guretzat aukera egon beharko litzateke gune pribatuetan egiteko eta ateratzen diren emaitzen aurrean plan bat egiteko.

Laburbilduz: partehartzeari garrantzi handia ematen diogu, elkarlanerako eskua luzatzen dugu, COVID egoeraren inguruan mahai teknika osatzeko beharra ikusten dugu, gaztedia arloan ez dugu udal honen norabidea ulertzen. Gu ere abstenitu egingo gara eta Beasain justu baten alde gaude, proposamenak egiteko prest gaude, kontra egin behar denean ere kontra egiteko prest.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Eskerrik asko, Hasier abstentzioagatik, ekarpenagatik eta jarreragatik izan ere lagundu egiten du bide bat elkarrekin egin ahal izateko eta dudarik gabe herriarentzat onura ekarriko du. Horrek ez du kentzen aipatu dituzun hainbat gauzei nire ekarpena egitea, jakinda ikuspegi ezberdinak ditugula. Legeak daudela, kreditu aldaketa gehiegi egiten direla esaten da. Kreditua aldaketa da, hain zuzen ere, prebisio bati (aurrekontua) egiteko aldaketako mekanismoa. Horren erabilera legezkoa da. Esan da aurten urte berezia dela eta aurrekoa ez. Plan ekonomiko finantzario batetan sartuta egon ginen 2019an eta horrek berezitasuneko bere bizikoa ematen dio. Izan ere horrek mugatzen ditu gastu guztiak eta horrek, zorionez dugun gordailuari esker, bideratzen du eduki horiek balioan jarri eta kreditu aldaketak egin eta proiektuaren kostua ordaindu ahal izatea. Aurrekontuen kronograma aipatu duzu. Nik uste dut 2015ean ni sartu nintzela eta ordutik badugu kronograma bat paperean gauzatutakoa 2016an eta eraman gaituena urtero aurrekontuak atera ahal izatea. Guk aurrekontuak kanpora begira baino barrura begira gehiago ikusten ditugu eta emendakin bidez egin beharrean aurretik elkarrekin lantzeko bidea hartzen dugu. Beharbada aurten izan daiteke horren adibidea. Ekainean hasi behar dugu teknikoekin lantzen, marra garrantzitsuenak zeintzuk diren ezarri, irailean proposamen bat egin eta proposamen hori pare bat hilabeteen landu alderdi ezberdinen artean eta aurrekontuak aurrera atera. Bide bat da. Ez da bakarra. Aurrekontu parte-hartzaileak izatea ados egon ninteke. Beste herri batzuetan ere hori garatzen ari dira baina ondo garatu behar da zeren eta 16 milioi €ko aurrekontu baten parte-hartzea kopuru batetara mugatzeak ez du zentzurik. Haratago joan beharko litzateke. Gastu politikoena aipatzen duzue. Okerra egongo da. Kiroldegiaren aurrekontua milioia eta berrehun mila euro da oker ez banago. Euskaltegian eta musika eskolan ere langileak aurrekontuaren parte dira eta gaitu e egiten dute. Beste hainbat gaien aipamena ere egin duzu: gaztedia saila desaktibatuta dagoela esan duzu. Nik ez dut horrela ikusten. Gaztediak beste ikuspegi bat izan dezakeela ados, baina ez zait iruditzen horrela denik Sinatzen ditugun hainbat hitzarmenen eskutik gazteei ematen zaizkie hainbat irtenbide. Horrek ez du kentzen irtenbide gehiago ematea. Autonomo eta mikroenpresei ematen zaizkien dirulaguntzak. Hor esan apirila arte dagoela Aldundiarekin konpromisoa diagnosia egiteko eta beraiek hasi dira ekarpenak egiten Beasaina bideratuta. Enpresen beharra ez da bakarrik dirua baizik eta behar dituzte bideragarritasun planak edo nazioarteko planak. Hainbat tokietatik sortu daitezkeen dirulaguntzetarako oinarrietan izan dezakete gabeziak. Beraz horietan parte hartzeko prestatu behar dira enpresa horiek. Plaka fotoboltaikoei buruz esan ez dela bakarrik jartzea. Atzetik egundoko lana dago bideragarritasun lana egiteko eta ikusteko inbertsioa egitea merezi duen. Arangoitin ere aztertzen ari gara jartzea merezi duen. 2020. Urte erabili dugu proiektu xelebre hauek egiteko eta 2021ean gastua egiteko. Ez gatoz bat 1.000 € edo 3.000 € jartzearekin. Aurrekontuan azaltzen bada konpromisoa eta gogoia dago egiteko. Bidea luzea izaten da eta hainbat proiektu egin arren, askotan errealitateak atzean uztea suposatzen du. Eskolako materialari buruz esan partidak ditugula Gurutze Gorriaren bidez. Hezkuntzaz gain eskolara jotzen dugu. Eskolekin harremanak ditugu eta egia da agian, detektatzeko bide berriak jarri behar ditugula. Eskoletatik ez zaigu iristen behar hori dagoenik, baina horretarako kontusaila badugu eta okerrean era hazteko aukera egongo litzateke."

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Kiroldegia esan dut baina hitzarmenak barne esan nahi nuen. Kreditu aldaketak legezkoak direla garbi dago baina herritarrentzako gardentasunari begira, aurkezten den proiektua aldatu egiten da. Guri iruditzen zaigu hori minimizatzeko neurriak bilatu behar liratekeela. Kronograma: beste aukera bat da, baina difuminatuagoa geratzen da bai oposizioaren lana. Gaztedia ez dago desaktibatuta Beasainen, baizik eta udal gaztedi saila ikusten dut desaktibatua. Bestalde uste dugu udal honek baduela ohitura zai egotekoa. Gure ustetan Udalak aurre hartu behar du eta gabeziak detektatu, izan ere inorentzat ez da

xamurra diru eske joatea inora. Eskatzen duenari ematen zaio baina beste pauso bat ematea gomendatzen dugu.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Azkeneko puntuan azpimarratu nahiko nuke ongizateko langileak COVID-a dela eta egin duten lanketa hain justu diozun eran. Ongizatean zain egon beharrean, deitu jendeari, detektatu...Guretzat seguru bat da herriari buruz duten argazkia. Horrek ez du kentzen inondik inora azaldu daitezkeela informazioa. Azpimarratzekoa da ongizate sailak egin duen esfortzua eta beraien ohituren lanketa justu horiek detektatzeko.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 7 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik.- 2021 urterako Aurrekontuaren espedienteari hasierako onartzea, Aurrekontua gauzatzeko Araua eta Aurrekontuaren eranskinak barne.

- |                                        |               |   |
|----------------------------------------|---------------|---|
| - Udalaren aurrekontu propioa:         | 16.625.601,15 | € |
| - Beasain Lantzen, S.A. likidazioan:   | 8.000,00      | € |
| - Aurrekontu Bateratua                 | 16.633.601,15 | € |
| - Konpromiso-kredituak (2.022, 2.023): | 422.093,10    | € |

Bigarren.- 15 egun jendaurrean jartzea eta epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada behin-betirako onartutzat emango da. Bestela, Udalbatzak hilabeteko epea izango du dagokiona ebazteko.

### **3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**

a.- DIRULAGUNTZAK: OSTALARIEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA NEGUAN TERRAZAK BABESTEKO ETA ZERBITZUA ESTABLEZIMENDUTIK KANPO EMATEKO. HORIEN OINARRIAK ONARTZEA ETA ARGITARATZEA.  
2020MEPO0037

Herritarrak batzordeko proposamen honen berri eman da:

“Ondorengoak kontuan hartuta:

1. 2020ko urtarrilaren 30ean, Nazioarteko Osasun Erregelamenduaren Larrialdietako Batzordearen gomendioz, Munduko Osasun Erakundeko zuzendari nagusiak koronabirus delakoaren sorrera Nazioarteko Garrantzizko Osasun Publikoko Larrialditzat jo zuen.

2. Harrezkero. Nazioartea, estatuan eta gure autonomia erkidegoan antolatze eta euste neurriak hartu dira. COVID-19 gaixotasunari goiz antzemanaz birusaren hedapena eteteko kasuak isolatu eta artatzeko, kontaktuen jarraipena egiteko eta arriskuaren araberako gizarte gizarte urruntzeko neurriak sustatzeko.

3. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, Covid-19ak eragindako osasun krisiaren Kudeakeatarako Alarma Egoera delaratu du.

4. Alarma egoera Espainiar Estatuko Lurralde osoan deklaratu da eta herritarren konfinamendua ekarri du ondorio gisa. Konfinamendu garai honetan Espainiar Estatuak neurriak hartu ditu eta honek eragin zuzena izan du herritarrengan bai eta industria, merkataritzan eta ostalaritzan ere, izan ere, lehen beharreko produktuak ez diutuzten komertzio eta establezimenduen itxiera ekarri du, horrek dakarren galera ekonomikoekin.

5. Azaoraren 6an Eusko Jaurlaritzak ostalaritzako lokal guztiak itxeko agindua eman zuen.

Hori dela eta, Beasaingo Udalak egoera larri hau aintzat harturik, COVID-19 pandemiak sortu dizkien eraginak ostalariei leundu eta neguan zerbitzua eskaintzeko behar duten baliabideak jartzeko laguntza eman nahi die.

#### LEGERIA APLIKARRIA

-Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra subentzioak emateari buruzkoa.

#### PROPOSAMENA:

Herritarrek batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egitea.

Lehenik: Beasaingo Udalak COVID-19ak eragindako kalteak arintzeko eta ostalaritza sustatzeko Beasaingo ostalariek neguan ere zerbitzua eskaintzeko behar dituzten estalkiak, jaimak edo antzeko elementuak erosteko dirulaguntza ematea. Horiek erosteko oinarriak onartzea eta deialdi publikoa egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta.

Bigarren: Udalak terrazetako elementu babeslea erosteko gastuaren %50 ordaintzea. Gehienez ere 1.000€."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Tal y como indicamos en la comisión informativa, nosotros estamos de acuerdo. Apoyamos esta iniciativa, aunque nos generan cierta duda ya que las bases deberían estar más detalladas sobre todo a la imagen que pueda dar a la ciudadanía. El departamento de urbanismo será el que apoye este tipo de instalaciones, pero también sabemos las quejas que suele haber cuando se permiten colocar este tipo de instalaciones en fiestas, pero pensamos que es positiva para reactivar la economía. Ahora bien, ahora la hostelería está cerrada y según las bases este tipo de instalaciones es para la época invernal. Es una inversión que tienen que hacer sin saber cuándo podrán abrir. La ayuda es como máximo de 1.000,00 €, pero la inversión puede ser superior. Quizás se debería prorrogar el período en el que pueden instalar. Como Bildu dijo en la comisión, frío y mal tiempo no sólo hace en invierno."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Lehengoan entzuten nuen ondorengo esaldia: administrazioan "*tiempos vaticanos*" erabiltzen omen dira. Baina guk oinarriak onartzea ezinbestekoa ikusten dugu zeren eta zain egon ezkerro noiz irekitzen diren tabernak, ordenantza bati hasiera emateko, berri ere itxiko dituzte!. Behingoz behintzat irekitzerako onartuta izango ditugu. Gero ikusi beharko da bideak zer ematen duen. Negua jarri bada izan da udaran ez izateko taberna bezain beste tokirik. Bideak erakutsiko digu et ez hori bakarrik baizik eta zein jaimekin datozen. Horregatik ezinbestekoa izango da lurralde saileko jarraipena. Oretuak izan behar dira eta itxurak ere kezkatzen gaitu. Lagundu nahian, itsuan egiten den ekarpena da, jakinda zein egoeratan dauden. Diru gutxi izan daiteke baina hemen egongo gara aldaketak egin behar badira, egiten."

Aitor Urdangarin Irastorza (Beasaingo EH Bildu): "Guk, Evak esan duen moduan, hainbat gauza zehazteko daude. Hurrengo neguan zer izango da, zeintzuk jartzeko aukera izango dute. Iruditzen zaigu proposamena lantzeko dagoela. Egongo dira dira tabernariak estalkiak urbanistikoki jarri ezin dituztenak eta horiek ez dute laguntzarik izango, inbertsorik egin ez dutelako nahiz eta, agian, prest egon Gu planteatzen duguna da beste herrietan egiten ari diren bezala, laguntza osagarriak onartzea. Hori guztia kontuan izanda, gure botoa ezezkoa izango da."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Zein tabernak izango duten aukeran jartzeko eta zeintzuk ez, ez da mugarik jartzen. Printzipioz, jarri dezaketen guztiak, baina orain arte izan dugun jarrera berdina: aparkalekuak egokitu ditugu terrazak jarri ahal izateko, pub-ei ere aukera eman zaie terraza jartzeko, berez aukerarik ez izanda, pub izatetik taberna-jarduera izatea onartu zaielako. Malgutasuna erabatekoa da, orain arte azaldu den bezala. Datorren neguan zer?. Ez dakigu. Ez dakigun bezala hemendik hamabost egunera zer izango dugun. Laguntza osagarriak jartzeko proposamen zehatzagoa behar da, zeren eta Eusko Jaurlaritzak baditu diru laguntza zuzenak eta horrezaz gain ERREak daude. Hainbat herrietan, adibidez Erreterian jarrita dago Eusko Jaurlaritzatik laguntzak jasotzen dituenak ez dutela udal laguntzarik izango. Nik uste dut irakurketa egin behar dela behin laguntzak eman ondoren eta ez aurretik. Guk egundoko borondatea azaldu dezakegu baina gero ez badira ematen ez du ezertarako balio. Niretzat garrantzia duena da, adibidez, bonoetan 300.000,00 € Beasainen mugitu direla. Horrek esan nahi du bertan gastatu dela eta hori da lortu nahi dena. NI osagarriak esatea baino zehatzagoa izan beharko luke. Nork izan lukeen aurkera eta nor kanpoan geratzen den. Gaizki ez banabil gaur egun Eusko Jaurlaritzak hostalari eta merkatariei emandako diru laguntzetaz onuradun izan direnak %97 dira. Beraz, %3 horientzat dira laguntza osagarriak?. Inportantea da lantzea eta jakitea zein kopurutaz ari garen. Langabezia dauden 200 pertsona horietaz ari gara?.Bakoitzari 1.000,00 € eman behar diegu. Hau da hilabetan 200.000,00 €?."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)  
Aurkako botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)  
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo oinarriak onartu dira:

Ostalariei zuzendutako dirulaguntzen deialdia neguan terrazak babesteko eta zerbitzua establezimendutik kanpo emateko.

## 1.- XEDEA

Oinarri hauen xedea Beasaingo ostalaritza sektoreari neguan zerbitzua eman ahal izateko behar dituzten elementuak (estalkiak, jaimak...) erosteko dirulaguntza ematea da, modu horretan, COVID-19ren pandemiaren ondorioz ezarritako prebentzio- eta urruntze-neurriak betetzeko.

## 2.- FINANTZIAZIOA

Udalak 50.000 euroko kreditua dauka esleitura 2020ko ekitaldi ekonomikoaren udal-aurrekontuaren 0243.471.433.10.3 Dirulaguntzak COVID19 partidan, deialdi honen xede diren eskabideak finantzatzeko.

## 3.- ONURADUNAK

Ostalaritzako epigrafean alta emanda dauden eta helbide fiskala Beasainen duten pertsona fisiko eta juridikoak.

## 4.- DIRULAGUNTZAK ESKATZEN DITUZTENEN BETEBEHARRAK

1- Baimena eskatzea Udalaren hirigintza azpisailari estalkia, jaimak edo terraza babesteko elementuak jartzeko.

2- Elementu horiek jartzeko, baimenean adierazitako baldintzak bete beharko dira, besteak beste, indarraldia (negua) eta osasun arloko jarraibideak bermatzeko betebeharrak..

3- Eskabidearekin batera, oinarri hauen eranskina aurkeztuko da, behar bezala beteta, eta, besteak beste, datu hauek aipatuko dira:

- Udal Ogasunarekin zorrik ez izatea.
- Egunean izatea Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak.
- Udalak ordainketa egiteko kontu-zenbakia.

## 5.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Udalak terrazako elementu babeslea erosteko gastuaren %50 ordainduko du, gehienez ere 1.000 €.

## 6.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 2021eko ekainaren 30era artekoa izango da.

Eskabidearekin batera faktura aurkeztu beharko da.

Dirulaguntzak 2020ko ekitaldi ekonomikoko aurrekontuaren kargura emango dira.

## 7.- DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Kontuan harturik laguntza hauek emateko kreditu nahikoa dagoela, 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei emanen zaizkie.

Herritarrak sailak kudeatuko ditu oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak. Teknikariek aztertuko dituzte aurkeztutako eskaerak, eta laguntzaren eskatzaileak olana, estalkia,

jaima eta abar jartzeko udal baimena duen egiaztatuko dute, eta horiek ebaluatuko dituzte. Laguntzak eman edo ukatzeko, alkatearen ebazpen arrazoitua beharko da.

## 8.- ESKABIDEEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan ezarritako laguntzak bateragarriak izango dira beste entitate eta erakunde batzuek emandako beste edozein laguntzarekin. Kasu horretan, horren berri eman beharko zaio Udalari.

## 9.- OINARRIEN ARGITALPENA

Oinarri hauek BDNSra igorriko dira Osoko Bilkurak onetsi ondoren eta ondoren GAOn argitaratuko dira.

ERANSKINA

.....Jn./Jna.-k

AITORTZEN du hurrengo datuak benetakoak izatea:

1. Establezimenduaren izena:

2. Aktibitatea duenaren identifikazioa:

Pertsona juridikoa izanez gero: Izen deiturak:..... IFZ:

Pertsona fisikoa izanez gero: Izen deiturak:

.....eta NA:

3. IAEN alta emanda egotea epigrafe honetan:

4. Kontu korrontearen zenbakia

5. Udalarekin zorrik ez izatea

6. Zuriketarako erositako estalki edo elementuaren faktura aurkeztu beharko da.

7.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

8. Helburu honetarako ondorengo dirulaguntzak jaso dituela.

Erakunde honetatik..... €

Espreski baimena ematen dio Beasaingo Udalari hala behar denean, zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finatza Departamentuari eta Gizarte Segurantzari eskatzeko beharrezkoak diren zerga datuak, dirulaguntza hauek eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla kreditatu, egiaztatu eta datuak eguneratu ditzan.

BAI EZ”

b.- BEASAINGO UDAL LOINATZ MUSIKA ESKOLAREN ANTOLAMENDU ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA: HASIERAKO ONESPENA. 2020MUBO0002

Aldez aurretik hitza emanda, Xabier Matarranz jaunak (EAJ-PNV), hitza hartu du eta ondorengoa adierazi du: Herritarrek batzordan esanda bezala, behar bati erantzuteko (organismo autonomoa izatetik udalaren barne egotea onartu izana), landu da

araudiaren aldaketa testua, 2001. enoa zena. Eguneratzen diren hainbat xehetasun martxan zeuden batzorde errektoreak hartutako erabakien arabera. Gobernu organoak aldatu dira, irakasleei aplikatzen zitzaizkien ordu lektiboen murrizketa (zuzenketa lanak, entsaioak, banda etab, direla eta) jasotzen da. Ikasleekiko, hezkuntza arautua izatetik kanpo utzi zenetik, asistentzia eta etekinari ematen zaio garrantzia eta horren ondorioz disziplina arauak aurreikusten dira. Matrikula nola burutu ere egokitu egin da eta kanpotik entsaiatzera datoztenentzat materialak erabiltzea arautu egiten da, tasak ordaintzeaz gain.”

Beasaingo Udal Loinatz Musika Eskolako Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiaren proposamena, Administrazio Publikoetako Administrazio-prozedura erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua dioena betez eta herritarren parte-hartzea bermatzeko, 2020-10-28an araudia egin aurreko kontsulta burutu zen, hain zuzen ere, araudiaren proposamena jendaurrean jarri zen Udalaren web orrian, adieraziz parte-hartze prozesua irekia egongo zela 2020-10-28tik 2020-11-15 arte, ekarpenak egin ahal izateko.

Epe horretan ez da inolako iradokizun edo ekarpenik aurkeztu, ez posta elektronikaren bidez eta ezta ere udalaren Igunean.

Beraz, Udalbatza Osoari ondorengoa onartzea proposaten zaio

*“**Lehenik.** Beasaingo Udal Loinatz Musika Eskolako Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiari hasierako onespena ematea.*

*“**Bigarren.** Jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, iragarkia GAOean argitaratuz erreklamazioak aurkeztu ahal izateko, adieraziz epe horretan alegazio edo iradokizunik ez bada izaten, araudia behin betiko onartua geratuko dela.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena eta ondorengo araudiari hasierako onespena eman zaio:

## **“ATARIKO TITULUA**

### **1. artikulua. Izaera.**

1. Beasaingo Musika Eskola 1977ko irailean sortu zen, udal Bandako zuzendariaren erretiratzearen ondorioz.

Apirilaren 5eko 75/1982 Dekretuak, Beasaingo Musika Eskola Oinarrizko Mailako musika irakaskuntzako zentro ez ofizial onartua izendatu zuen.

1989ko ekainaren 8ko batzarrean, Udalbatzak sortu zuen Beasaingo Musika Kontserbatorioa deitutako Erakunde Autonomoa. Era berean, irailaren 5eko 185/1989 Dekretuak balio akademiko ofiziala eman zion Beasaingo Oinarrizko Kontserbatorioan irakatsitako Oinarrizko Mailako musika irakaskuntzei.

1990ko otsailaren 19ko Aginduak, Ertaina Mailako balio ofiziala eman zion: Solfeo 5.maila eta Korala 2.maila.

1991eko abenduaren 17ko Dekretuak Ertaina Mailako musika irakaskuntzak emateko baimena eman zion.

1992an, urriaren 27ko 289/1992 Dekretuko aldi bateko xedapenak diren 1.etik 5.era bitartekoaren aplikazioaz, araututako irakaskuntzako musika ikastetxeak, hau da, oinarrizko eta ertaina mailako kontserbatorioak, Musika Eskola bihurtu ziren. Honen ondorioz, 1993ko urriaren 11ko aginduak, baimendu zuen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoko kontserbatorioak Musika Eskola bihurtzea (EHAO 93-11-11).

Beasaingo Udaltzaren 2019ko maiatzaren 23an ohiko osoko bilkuran "Beasaingo Loinatz Musika Eskola Erakunde Autonomoa" desegin zuen, Udaltzaren bilakaturik Herriak Sailaren barruan.

Aurrerantzean Beasaingo Udaltzaren Loinatz Musika Eskola.

Musika Eskola, ekonomiko eta administratibo arloan, Beasaingo Udaleko gobernu organoak, dagozkien konpetentzietan hartzen dituzten akordioen menpe egongo da.

Beste maila guztietan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arauaz gidatuko da, 1992ko urriaren 27ko 289/92 Dekretuak dionez, edo materiari buruz ezartzen diren beste edozein arauaz."

## **2. artikulua. Zereginak eta Jarduera.**

Beasaingo Udaltzaren Loinatz Musika Eskola, musika irakaskuntzako ikastetxe bat da, musikaren alorretan, bost urtetik gorako ikasleei musikaren alorretan prestakuntza praktikoa eskaintzen duena, gaitasun eta bokazio berezia erakusten dituztenentzat lanbide-ikasketarako bideratzeko eta prestatzeko zeregina alde batera utzi gabe.

Beasaingo Udaltzaren Loinatz Musika Eskolaren helburu nagusiak dira:

- a) Haurtzarotik musika baloratze eta ezagutza sustatzea, haurrei txikitatik ikaste horretan hasiz.
- b) Irakaskuntza Instrumentala eta Kantua eskaintzea, bakar lanean nahiz taldean praktikatzera bideratuta.
- c) Musika-jardueren artean dauden aukera guztiak eskaintzea: musika klasikoa, folklorea, elektronikoa, jazz, rocka, e.a. baldin eta aukera ekonomikoak ahalbidetzen dute.
- d) Praktika Instrumentalaren eta Kantuaren musika irakaskuntza osagarria ematea.
- e) Talde bokal eta instrumentaletan parte hartzeko interesa ikasleengan sustatzea.
- f) Emanaldi publikoak antolatzea eta ekintza musikaletan parte hartzea.
- g) Ikaslearen talentu berezia eta bokazioak hala dioen kasuetan, lanbide izaera dituen irakaskuntzara bideratu, aipatu irakaskuntzan sartzeko prestakuntza egokia emanaz.
- h) Bertako eta eskualdeko tradizioak bildu, taxutu eta zabaltzea, herriko kultura-nortasunaren gune bilakaturik.
- i) Euskadi, Espainia eta Europako Musika Eskolekin harremanetan egotea, irakaskuntza metodologiak, ikasleak eta irakasleak elkarren artean trukatzeko, jarduera batzuk batera egiteko, antolaketa ereduen berri elkarri emateko, etab.

## **I.TITULUA GOBERNU ETA KUDEAKETA**

### **1. Atala. Gobernu Organoak**

#### **3. artikulua. Alkatea.**

-Alkatea: Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan aurreikusten diren eskumenak.

#### **4. artikulua. Udaltzaren.**

-Udaltzaren: Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikuluan aurreikusten diren eskumenak.

#### **5. artikulua. Gobernu Batzordea.**

-Gobernu Batzordea: Alkateak edo Plenoak delegatzen dizkion eskumenak.

### **2. atala. Organo osagarriak.**

## **6. artikulua. Batzorde informatzailea.**

-Batzorde Informatzailea: Korporazio bakoitza osatu ondoreneko plenoak egiten duen lehenengo bileran ezarritako funtzioak.

### **3. Atala. Kudeaketa Organoak**

## **7. artikulua. Zuzendaria.**

Dagokion Batzordeak informatzaileak, klaustroaren proposamena entzun ondoren, zuzendaritzaren izendapena eta dagokionean kargua uzteko proposamena egingo du, gaiarekiko zerikusia duten lege xedapenei atxikita, Udalaren onespenean jarritz.

### **7.1 Zuzendariaren funtzioak izango dira:**

- a) Batzorde informatzailearen akordioak egikaritu eta bete araztea.
- b) Batzorde informatzailean landu eta onartuko diren gaiak prestatu.
- c) Batzordea aholkatzea.
- d) Bileretara joatea, ahotsarekin baina botorik gabe.
- e) Kudeaketa ekonomikoa, onetsitako aurrekontuaren eta ezarritako oinarrien arabera garatzea.
- f) Zerbitzuaren kudeaketa ekonomikoaren jarraipena gauzatu.
- g) Zerbitzua zuzendu eta ikuskatzea, Saileko buruaren gainetiko zuzendaritza eta ikuskatzailatzarekin.
- h) Musika Eskolaren Antolakuntza eta funtzionamendu ona bermatu.
- i) Ikastetxearen iraupena eta mantenua zaintzea, Udaleko Zerbitzu Sailaren laguntzarekin.
- j) Musika Eskolako korrespondentzia sinadura erabiltzea.
- k) Ikasturteko memoria egiteko prozesuan parte hartzea.
- l) Batzorde informatzaileari bere esku emandako zerbitzuen administrazio eta Musika Eskolaren gizarte-helburu den irakaskuntza, arte eta kultur jardueraren artean beharrezkoa den koordinazioa ziurtatzea.
- m) Beasaingo Udal Loinatz Musika Eskolako eta bere mende dituen gainerako zerbitzu, establezimendu, edo arte-taldean ihardun egitarauak, aurrekontuak, baliabide materialen beharrianak eta pertsonalak nahiz bere ihardun arloa hobetzen laguntzen duten inguruabar guztia sartuz.
- n) Irakasle, ikasle eta bere erantzukizuna hedatzen zaien talde eta zerbitzuetako partaideengan irakaskuntza eta diziplina arloko eginkizunak egikaritzea.
- o) Lidoak gauzatzea eta Beasaingo Udal Loinatz Musika Eskolako musika-politika garatzea, Batzorde informatzaileari bidezkoak iruditzen diren ekimen guztiak proposatuz.
- p) Ikasleen onarpen prozesua gainbegiratzea.
- q) Giza Baliabideak:
  1. Irakasleen aukeraketa prozesua kudeatu.
  2. Musika jarduerarekin zerikusia duten ekitaldiak, musika taldeak eta musikarien aukeraketa kudeatu.
- r) Musika Eskola osoari koherentzia eta batasuna eman bere hezkuntza aspektu guztietan.
- s) Departamentu Didaktiko ezberdinen proposamenak onartu edo aldatu bere onarpenerako beharrezkoa izango balitz.
- t) Batzorde informatzaileari proposatu, egokiak iruditutako bezainbeste neurri, Musika Eskolako funtzionamendua eta zerbitzua hobea izan dadin.
- u) Eskolako jardueren eta kontzertuen ekoizpeneko koordinazioa.
- v) Baliabide teknologikoen koordinazioa Informatika Sailarekin.
- x) Administrazio Unitateko lana antolatu eta gainbegiratu.
- y) Klaustroko gai zerrenda prestatu.

## **8. artikulua. Irakasleriaren Klaustroa.**

- a) Irakasleen klaustroa, Beasaingo Udaleko plantillan dauden irakasleen organo kolegiatua da, Beasaingo Udal Loinatz Musika Eskolari atxikirik daudelarik. Lehendakaria Eskolako zuzendaria da eta bera egoten ez denean, berak bere ordez izendatutako pertsonak beteko ditu haren eginkizunak.
- b) Klaustroa legez eratzutzat joko da irakasle guztien erdiak gehi bat bertaratuz gero. Quorum horri eutsi beharko zaio bilkura osoan erabakiak legezko izan daitezen. Nahitaez izan behar da bileran idazkaria edo honek izendatutako ordezkaria.

- c) Erabakiak bozketa arruntaren bidez hartuko dira, norbaitek isilpeko bozketa eskatu ezean.
- d) Akordioak onartuko dira aldeko botoen gehiengo hutsa edukita. Berdinketarik egotekotan, beste bozketa bat izango da eta, berdin- ketak bere hartan iraunez gero, lehendakaritza kargua duenaren kalitatezko botoak erabakiko du.
- e) Klaustroak 7 izango dira ikasturteko: 1 hasieran, 5 ikasturtean zehar eta 1 amaieran. Hala ere, komenigarritzat jotzen bada, klaustro gehiago deitu ahal izango dira.
- f) Deialdia gutxieneko 8 egun lehenago adieraziko da, premiazko kasuetan ezik, 48 ordu lehenago izango delarik.
- g) Ezingo da erabakirik hartu gai-zerrendan ez dauden gaiei buruz, salbu eta klaustroak, kideen legezko gehiengo osoaren botoarekin, premiazkotzat jotzen badu eta dagokion proposamena aurkezten bada.

#### Klaustroko Aktak:

Eskolako Administrazio Arloaren arduradunak, edo hark eskuordetutako kideak, jasoko ditu aktak. Irakasleei bidaliko dizkie e-mailez hiru laneguneko epean. Akta hurrengo bileran onartuko da, gai-zerrendako lehen gaia izanik.

#### Klaustroaren funtzioak:

- a) Musika Eskolako Hezkuntza Proiektua onartu.
- b) Ekintzen plan orokorrarekin bat datozen irizpideak proposatu.
- c) Urteko plana eta ikasturte amaierako Memoriaren oniritzia eman.
- d) Ebaluaketa lana, ikasleen errehabilitazioa eta ikasle berriak onartzeko aukeraketa frogei buruz, irizpideak finkatu eta koordinatu.
- e) Esperimentatze eta ikerketa pedagogiko mailan ekimenak sustatu.
- f) Batzorde informatzaileari egokiak iruditzen zaizkien bezainbeste proposamen eta txosten aurkeztu.
- g) Ikastetxeko ekonomiko nahiz akademiko martxa ezagutzea.
- h) Plazen sorkuntza edo aldaketak proposatu Batzorde informatzaileari.
- i) Irakaskuntza eta ikasleei buruz azaltzen diren zalantzazko kasuetan erabaki eta iritzia eman, Batzorde informatzaileak eskatzen badu.
- j) Ikasketa planen onarpena.
- k) Irakasleriaren hobetze formakuntza programak proposatu.
- l) Urteko plana eta ikasturteko Memoria gauzatze prozesuan parte hartu.
- m) Legalki eginarazten diren beste edozein.

### **9. artikulua. Departamentu Didaktikoak.**

Musika Eskola Departamentu Didaktikoetan egituratuta dago, ematen diren diziplinen arabera.

#### 9.1 Departamentu Didaktikoak:

1. Haria.
2. Haizea -egurra eta metalak-
3. Perkusioa.
4. Akordeoia eta Trikitixa.
5. Pianoa.
6. Gitarra.
7. Txistu eta Dultzaina.
8. Kantua, Korala eta Abesbatza.
9. Musika Tailerra eta Musika Lengoia.
10. III. Mailako Ikasgai osagarriak.
11. Etorkizunean sortzen direnak eta aurrekoekin lotuta ez dauden guztiak, hala nola joera modernoak etab.

##### 9.1.1 Departamentu Didaktikoen funtzioak izango dira:

- a) Plan Pedagogiko orokorra egin.
- b) Hezkuntza helburuak finkatu.
- c) Eduki hezigarriak mugatu.
- d) Ebaluaketa irizpideak eta eskatuko diren gutxieneko edukiak mugatu.
- e) Ikaslegoa mailaz pasatzeko irizpideak zehaztu.
- f) Musika Eskolako hezkuntza eskaintzako irizpideak proposatu, eskaera nahiz sustatu nahi den eskaintzaren arabera.

- g)Ekintzak antolatu, bai ikasleentzako (kontzertuak, entzunaldiak,...) bai irakasleentzako (ikastaroetan parte hartu, kongresu...).
- h)Behar diren instrumentuak eta baliabide didaktikoak antolatu eta aukeratu.
- i)Ikasle berriak aukeratzeko frogetan erabiliko diren irizpide teknikoak ezarri.
- j)Ebaluaketa metodoak eta frogak antolatu eta egin.
- k)Frogen emaitzak aztertu eman diren metodologia eraginkorrak edo desegokiak, eta zuzentze eta hobetze neurriak hartu.

## 9.2 Departamentu Arduradunak

Irakasle bat baino gehiago dauden Departamentu Didaktikoetan arduradun bat izango da.

### 9.2.1 Arlo Arduradunaren funtzioak izango dira:

- a)Espezialitatearen irakasleen arteko koordinazio lanak egingo ditu.
- b)Metodo eta Programazio berbera lantzea bermatuko du.
- c)Bileretako deialdia egin eta zuzendu.
- d)Departamentu didaktikoetan landuko diren gaiak prestatu eta antolatu.
- e)Egitarauak eta ondorengo ebaluaketak betetzen direla bermatu.
- f)Zuzendaria informatu landu diren gaiei buruz, eta beharrezkoa izango balitz irakasle klustroan landu badaezpadako neurriak.
- g)Zuzendariari lagundu Ikastetxeko antolaketa lanetan.

## 10. artikulua. *Administrazio Unitatea.*

Administrazio Unitatearen eginkizuna da hartzen diren kudeaketa akordioak gauzatzea. Era berean, honako eginkizun hauek ere bere gain hartuko ditu:

- a)Matrikulazioa.
  - b)Ikasleen Datu Basea eguneratuta mantendu.
  - c)Ikasleen taldeak, zerrendak etab antolatu.
  - d)Ikasleekiko eta hauen arduradunekiko komunikazioa: oharrak, jakinarazpenak etab.
  - e) Irakasleek hiru hilean behin egindako balorazio txostenak ikasleei bidaltzea.
  - f)Harrera telefonikoa.
  - g)Hainbat baliabide material edota didaktikoen erostea eta fakturatzea.
  - h)Hileko Tasen Padroia prestatu.
  - i)Kanpo komunikazioa, web, sare sozialak.
  - j)Mantenuko koordinazioa Zerbitzu Azpi Sailarekin.
  - k)klastroaren bileren akta egin, Araudi honetako 8. Artikuluak dioen arabera.
  - l)Eusko Jaurlaritzaren Diru-laguntza eskaera betetzea eta izapidetzea.
  - m)DAEK eskatzen dituen datuak betetzea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari bidaltzea.
  - n) Esleitu dakiokkeen beste edozein eginkizun.
- Beasaingo Udal Loinatz Musika Eskolan lan egiten duten administrazioko langileek ere araudi hau bete beharko dute.

Beasaingo Udal Loinatz Musika Eskolako zuzendaritzak egiten duen urteko lan egutegian, administrazioko langileak ere berariaz aipatuko dira, Musika Eskolaren beharrak kontuan hartuta. Egutegi hori Udaleko Antolakuntza eta GG BB Azpi Sailera bidaliko da.

## II. TITULUA

### IRAKASLEAK

#### 1. atala. Lanaldia.

## 11. artikulua. *Irakasleen lanaldia.*

Irakasleen lanaldian egun lektiboak eta presentzialak bereiztuko dira.

Egun lektiboak, Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailak ematen dituen irizpideen arabera kopuruan. Egun lektibotzat joko dira klaseak ematekoak, gainera, proba pedagogikoak egiteko edo ikasleekin jardura pedagogikoak egiteko egunak.

Egun presentziazkoak, Toki Administrazioako funtzionarioei eta laboralak diren langileei aplikatu beharreko hitzarmenean finkatzen den egutegia betetzeko falta diren gainerako egunak izango dira. Eskolaz kanpoko garaioak izango dira, eta birziklatze ikastaroak, proiektuak, txostenak, eskolaz kanpoko jarduerak eta abar gauzatzeko erabiliko dira.

#### **12. artikulua. Irakasleen lanaldiaren kontzeptuak.**

1. Irakasleen asteko lanaldia Eskolaren Urteko Kudeaketa Planean jasoko da eta kontzeptu hauen arteko bereizketa egingo da:

-Ordu Lektiboak: Onartutako eskolako egutegiaren barruan, klase teorikoak edo praktikoak emateko eta era guztietako probak egiteko erabiliko direnak, ahozkoak, idatzizkoak, instrumentalak, etab.,.

-Ordu Osagarriak: asteko lanaldia osatu arteko orduak dira. Klaseak prestatzeko, ariketak eta jarduerak prestatzeko eta ebaluatzeko, jardura osagarriak prestatzeko eta egiteko, departamentuko bileretara joateko, tutoretzarako, ebaluazio bileretarako, gurasoekin bilerak egiteko, kide anitzeko organoetan parte hartzeko, kultur jardueretarako, entzunaldietarako, ikerketarako eta abarrerako erabiliko dira.

2. Hitzarmenean jasotzen den bezala, ordu kopuru bat dago, gainerako langile publikoekin parekatu artekoa, profesionaltasuna mantentzeko, irakaslanak dituen eginkizunak betetzeko eta zerbitzuaren ordutegien espezifikotasuna konpentsatzeko.

#### **13. artikulua. Ordu murrizketa Ikastetxeko zuzendaritza karguagatik.**

Zuzendari ardura duen irakasleak ordu lektiboen murrizketa eta hitzarmenean ezartzen direnen artean esleitutako ordainsari osagarriak izango ditu,

#### **14. artikulua. Ordu murrizketak Taldeen zuzendaritza arduragatik.**

Talde Instrumental nahiz Korale Zuzendari ardura duen irakasleak eskola orduan murrizketa izango du, hitzarmenean zehaztutakoaren arabera. Era guztietara talde bakoitzaren ekintzen kopuruekin koherentzia izango du.

#### **15. artikulua. Ordu murrizketak proiektu espezifikogatik.**

Ordu lektiboak murriztu ahal izango dira, zuzendaritzaren iritziz Musika Eskolarentzat interes orokorrekoak diren proiektu espezifikokoak egiteko.

2. atala. Ordutegiak.

#### **16. artikulua. Ordutegiak prestatzeko prozesua.**

Ordutegiak prestatzeko prozesua eta horiek kontrolatzea Zuzendariaren ardura da, eta Eskolaren interesen arabera eta ikastetxeetako ordutegiak kontuan izanda prestatuko dira.

Irakasle bakoitzaren ordutegi partikularrak egiterakoan aurretik ezarritako ordutegi orokorrak kontuan izango dira, besteak beste:

-Gai osagarrien ordutegiak: Musika Lengoaiak maila guztiak, Harmonia, Analisia, Historia eta Informatika.

-Talde Instrumentalen nahiz Koraleen entsegu ordutegiak.

-Irizpide aplikagarriak:

a) Ordutegi partikularrak inolaz ere ezin dute talka egin aurreko ataletan ezarritako ordutegiekin.

b) Musika Eskola ez dago behartua beste eskolaz kanpoko ordutegiak errespetatzera. Besteekiko nagusitasuna du.

- Irakasleriak ordutegi partikularrak emango dizkio Zuzendaritari, gainbegiratze arren.
- Irakasleriaren ordutegi koadroa bistan egongo da irakasle gelan.
- Era berean, Udaleko GGBB arlora bidaliko da fitxaketen kontrola gauzatzeko.
- Zuzendaritzak osatuko du gela disponibilitate koadroa ikasleek ikasteko erabili dezaten. Bertan ikasle erabiltzaile guztien izenak eta orduak ezarriko dira.

### 3. atala. Eskubideak eta betebeharrak.

#### **17. artikulua. Irakasleen eskubideak.**

Lan alorreko legeek onarturikoez gain, irakasleek honako eskubide hauek edukiko dituzte:

- a) Instalazioak bakoitzak bere eginkizunerako erabiltzea, 50. artikuluan jasotzen den arabera.
- b) Bere ordutegia prestatzea Musika Eskolaren irizpideen arabera.
- c) Beren eginkizunak betetzeko behar duten materiala edukitzea.
- d) Segurtasun eta higiena baldintza egokietan irakastea.
- e) Klaustro bileretara bertaratzeko.
- f) Kontzertuetan jardun ahal izatea, jarduera sortzaileetan parte hartu ahal izatea eta bere espezialitateko ikastaro edo kongresuetara joan ahal izatea, gaitasun artistiko eta pedagogikoa eguneratuta edukitzeko helburuarekin, beti ere irakaskuntza jarduerari kalterik egin gabe.
- g) Aurreikusitako ordutegia aldatu ahal izatea, zuzendaritzari aldeztatu eskatuta.

#### **18. artikulua. Irakasleen betebeharrak.**

Lan harremanaren ondoriozkoek gain, irakasleek honako betebeharrak hauek edukiko dituzte:

- a) Puntualtasunez ematea bere osotasunean dituen klaseak.
- b) Klaseetan ordena eta disziplina mantentzea eta aprobetxamendua sustatzea, eta zuzendaritzari eta ikasleen arduradunei gertatzen diren gorabehera guztien berri ematea.
- c) Irakasleen txostenak prestatzea, non asistentzia, probetxua eta eboluzioa jasoko den, hain zuzen ere. Aipatutako txostenak ikasleei emango zaizkie.
- d) Esleitzen dizkieten ikasleen tutorea izatea.
- e) Irakasleek edota ikasleen arduradunak hartu ezarritako arreta ordutegian.
- f) Laneko zereginei buruz eskatzen dizkieten txostenak egitea.
- g) Irakasle Klaustroetara, ebaluazio saioetara, pedagogia bileretara eta deitutako bestelako bileretara bertaratzeko.
- h) Musika Eskolaren arauak betetzea, desadostasunen berri eman dezakeela alde batera utzita.
- i) Izendatutako karguak onartzea, ados ez badago izan ezik.

## **III. TITULUA**

### **IKASLEAK**

### 1. atala. Eskubideak eta betebeharrak.

#### **19. artikulua. Erreferentzia esparrua.**

Ikasle guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, adinaren, zikloaren eta mailaren arabera, eta bai gobernu organoek bai Beasaingo Udal Loinatz Musika Eskolak errespetatu beharko dituzte.

#### **20. artikulua. Irakasleen eskubideak.**

- a) Bere duintasun pertsonala errespetatua izateko eskubidea, eta tratu egokia izateko eskubidea.
- b) Beren eskola errendimendua objektibotasun irizpideen arabera baloratua izateko eskubidea.

c)Ikastetxeko zuzendaritza-organoetan ekimenak, iradokizunak edo erreklamazioak egiteko eskubidea.

d)Ezarritako ordutegi akademikoa errespetatzeko eskubidea, eta irakaskuntza jardura eteten den kasuetan, behar besteko aurrerapenaz jakinarazteko eskubidea.

e)Kalitatezko irakaskuntza jasotzeko eta helburu horretarako ikastetxean dauden baliabide materialak erabiltzeko eskubidea.

## **21. artikulua. Ikasleen betebeharrak.**

a)Musika Eskolako arautegia onartu eta betetzea.

b)Hezkuntza komunitatea osatzen duten gainerako pertsonen eskubideak eta askatasunak errespetatzea.

c)Ikasten dituzten irakasgaien eskoletara joatea.

d)Zuzendaritzaren eta irakasleen xedapenak eta aginduak betetzea, bai irakaskuntza araubideari, ordenari eta barne diziplinari buruzko guztiari ere.

e)Helbidearen, telefonoaren, k.k.aren, helbide elektronikoaren etab. izandako aldaketen berri ematea.

f)Eraikinean edo Musika Eskolako materialean eragiten dituzten kalteak konpondu eta birjarri behar dituzte.

g)Musika Eskolak ezarritako epean, dagozkion tasak ordaintzea, Udalak onartutakoak, hain zuzen ere. Edozein tasa ordaintzen ez bada (matrikula, hilekoa, materiala, etab.), ikaslearen baja ekar dezake. Nolanahi ere, osorik ordainduta egon beharko dute hurrengo ikasturtea hasi baino lehen. Gaixorik egotegatik edo beste arrazoi batengatik eskolara ez joateak ez du kentzen tasak ordaintzeko obligazioa.

h)Ezarritako ordutegia errespetatzea.

i) Parte hartzen duten jardura edota kontzertuetan Musika Eskolak ikus-entzunezko grabazioak egin ahal izatea baimentzea, honen sustapenerako edo erabilerako. Horregatik, ikasleek ez dute inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.

j) Ikasten dituzten irakasgaien klaseetara unean-unean bertaratzea, baita parte hartzen duten taldeen entseuetara ere.

k)Ikasteari behar den denbora ematea, jasotako irakaskuntzak behar bezala aprobetxatzeko helburuarekin. Hartutako lezioak behar bezala aprobetxatzen ez dituela egiaztatuz gero, ikasleak galdu ahal izango du matrikula berritzearen eskubidea.

Horretarako, prozedura ondorengoa izango da:

Irakasleak zuzendaritzari, ikasleari eta bere arduradunei jakinaraziko die eta ikaslearekin eta bere arduradunekin tratatuko du gaia.

Egoerak bere horretan jarraitzen badu, zuzendaritzak idatzizko komunikazio bat bidaliko die ikasleari eta bere arduradunei, datorren ikasturtean ikasgaian matrikulatzeko eskubidea galtzeko aukeraren berri emateko.

Arazoa konpontzen ez bada, zuzendaritzak idatzizko komunikazio bat bidaliko die ikasleari eta bere arduradunei, matrikula berritzeko eskubidea galdu duela jakinarazteko.

2. atala. Diziplina araubidea.

## **22. artikulua. Arau hausteak.**

1.Ikasleen arau hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

2.Arau hauste arinak:

a) Justifikatu gabeko puntualtasun faltak.

b)Behar ez bezala erabiltzearen ondorioz kalte ez larriak egitea Musika Eskolako lokalei, materialari edo dokumentuei.

c)Justifikatu gabeko beste edozein ekintza, banakoa edo taldekoa, baldin eta Musika Eskolako ohiko jarduna modu arinean aldatzen badu.

3. Arau hauste larriak dira:

- a) Justifikatu gabeko asistentzia hutsak.
- b) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako diziplinarik ezezko, irainezko edo ofentsa ekintza.
- c) Behar ez bezala erabiltzearen ondorioz kalteak egitea Hezkuntza Komunitateko gainerako kideen gauzei.
- d) Justifikatu gabeko beste edozein ekintza, banakoa edo taldekoa, baldin eta Musika Eskolako ohiko jarduna modu larrian aldatzen badu.
- e) Ikasturte berean 3 arau hauste arin egitea.

4. Oso arau hauste larriak dira:

- a) Ikasturte berean 6 asistentzia huts justifikatu gabeak, banakakoak nahiz taldekoak izan.
- b) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako diziplinarik ezezko, iraineko edo ofentsa ekintza oso larriak.
- c) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako eraso fisiko oso larriak.
- d) Beste inoren lekua hartzea hezkuntza ekintzetan eta dokumentu akademikoak faltsutzea edo lapurtzea.
- e) Hezkuntza Komunitateko kideen osasun eta osotasun pertsonalerako ekintza oso kaltegarriak bultzatu edo egitea.
- f) Nahita kalte larriak egitea Musika Eskolako lokalei, materialari edo dokumentuei edo Hezkuntza Komunitatea osatzen duten kideen gauzei.
- g) Larritzat jotako arau hausteak, baldin eta taldeka edo nahita iragarrita gertatzen badira.
- h) Ikasturte berean hiru arau hauste larri egitea, banakoak edo kolektiboak izan.

5. Eraso sexual eta sexistak, Beasaingo Udalaren prebentzio eta jardute protokoloa, sexu jazarpenaren eta jazarpen sexistaren aurkakoa dokumentuan jasotzen diren bezala sailkatuko dira.

### **23 artikulua. Zigorrak.**

1. Aurretik zerrendatutako arau hausteengatik, honako zigor hauek ezar daitezke:

Arau hauste arinengatik:

-Ahoz edo idatziz kargu hartzea eta idatziz jasota uztea, ikasleei eta bere arduradunei txosten zehaztua bidali ahalko zaie, egoeraren arabera.

Arau hauste larriengatik:

-Musika Eskolatik aldi baterako bidaltzea.

Arau hauste oso larriengatik:

-Musika Eskolatik ikasturte osorako behin betiko bidaltzea, hurrengo ikasturtean matrikulatzeko eskubidea ere galtzea eraman dezakeena.

2. Kalte materialik egotekotan, arau hausleak eragindako kalteak konpondu beharko ditu edota konponketa ordaindu. Era berean, ikasleren batek Musika Eskolako ondasunik lapurtuz gero, ostutakoa berriro ekarri beharko du. Nolanahi ere den, ikasleen arduradunak izango dira ikasleen erantzule zibilak, legeek xedaturikoaren arabera.

### **24. artikulua. Zigor jardunbidea.**

1. Zehapenak ezartzeko organo eskuduna alkatea izango da.

Arau hauste arinak ikasleari, irakasleari eta haren arduradunei entzun ondoren ezarriko dira.

Arau hauste larriak eta oso larriak ikasleari eta, adingabea bada, haren arduradunei entzunaldia emateko prozedura bideratu ondoren ezarriko dira.

Instrukzio organoa Musika Eskolako zuzendaritza izango da, eta alkateak ebatziko du.

2. Arau hauste arinak sei hilabeteko epean iraungiko dira, larriak bi urteko epean eta oso larriak hiru urteko epean, egin ziren egunetik aurrera.

Halako jokabideak direla eta ezarritako zigorrak urte bateko epean iraungiko dira arau hauste arinak badira, bi urteko epean arau hauste larriak badira eta hiru urteko epean arau hauste oso larriak badira.

3.Zigorrak ezartzerakoan kontuan izango dira ikaslearen adina, egoera pertsonala, familiarra eta soziala, eta zigorrak helburu hezigarri eta errekupeazioko izaera izango du.

4.Zigorra ezartzerakoan, honako hauek balioetsiko dira, Inguruabar aringarriak:

- a) Arau haustea berez onartzea.
- b)Lehendik bestelako zigorrik jaso ez izana.
- c)Jendaurrean barkatzeko eskatzea.
- d)Egindakoaren neurriko kalterik egiteko asmorik eduki ez izana.

Inguruabar larrigarriak:

- a)Kaltea txikiago bati, minusbaliatuari edo Eskolara etorri berriari egin zaionean.
  - b)Nahita egitea.
  - c)Jakinararen gainean egitea.
  - d)Taldeko arau haustea bultzatzea.
  - e)Eskolan ordezkari izatea arau haustea egiteko erabiltzea.
- 5.Arau haustea Musika Eskola esparrutik kanpo gertatzeak ez du galaraziko honako araudi hau erabiltzerik, baldin eta eskolak programaturiko ekintza osagarri eta eskolaz kanpokoetan izan bada.

## **25. artikulua. Asistentzia hutsak.**

Ikasleek eskolara joan beharra bermatzeko, ondoko arauak izango dira gogoan.

1.Irakasleek, zuzendaritzari adierazi eta gero, ikasleen huts eginak kontrolatu beharko dituzte eta ikasleen arduradunei jakinarazi beharko die gertatzen diren unean bertan, era berean huts egitearen zergatiaz galdetuz.

2.Irakasleak klase hutsen ondorioen jakitun jarriko du ikaslea, baimendutako klase hutsen mugara heldu aurretik.

3.Ikasleak ikasturte berean justifikatu gabeko 6 huts egingo balitu eta Araudi honetako 23. artikuluan aurreikusitako neurriekin zigortu beharko balitz, zuzendariak interesatuei jakinaraziko die.

4.Klase hutsegite justifikatutzat joko dira honako hauek:

- a)Gaixotasun aldi baterakoa edo luzea.
- b)Gertaera edo zirkunstantzia pertsonal larriak edo ohiz kanpokoak.
- c)Musika Eskola honetako beste edozein ekintzarekin bat etortzea.

5.Adin txikikoen klase hutsegiteak idatziz justifikatu beharko dituzte haren arduradunek, eta irakasleari eman beharko dizkiote. Ikasle helduek euren hutsegiteak justifikatuko dituzte.

6.Ez dira huts justifikatutzat joko eskolaz kanpoko beste jarduera batzuetara joateagatik egindakoak: Hizkuntza klaseak, kirol jarduerak eta katekesia. Kontsiderazio berezia izan ahalko dute aparteko eta puntualki gauzatzen diren danborrada, taldeko dantza eta 1. Jaunartze entseguak, era berean eskola txangoak.

## **IV. TITULUA**

### **KUDEAKETA ETA EBALUATZEKO TRESNAK**

1. atala. Hezkuntza eskaintza.

**26. artikulua. Hezkuntza eskaintza.**

1. Hezkuntza Eskaintza gestio tresna bat da, Musika Eskolan diren plazak zehazteko balio duena.
2. Zuzendaritzak zehaztuko du Hezkuntza Eskaintza, non espezialitate eta ikasgai bakoitzeko guztira dauden plazak adieraziko diren.
3. Hezkuntza Eskaintza egiterakoan ahaleginak egingo dira Musika Eskolan ikasleen banaketan oreka hobetzeko. Horretarako, plaza batzuk eskainiko dira honako ezaugarri hauek aintzat hartuta:
  - a) Adina. Musika Lengoaia Hastapeneko ikasleek lehentasuna izango dute.
  - b) Instrumentu Espezialitateak eta kantua.
  - c) Ikasgai osagarriak.
  - d) Talde instrumentalak nahiz Kantukoak.
4. Hezkuntza eskaintzan hutsik dauden plazei buruzko informazioa emango zaio eskatzen duenari.

2. atala. Urteko Kudeaketa Plana (UKP)

**27. artikulua. Urteko kudeaketa plana (UKP).**

Eskolak Urteko Kudeaketa Plana (UKP) prestatuko du ikasturtea hasi aurretik, hezkuntza ekintza guztiak era koordinatuan egingo direla, eskuduntzak behar bezala erabiliko direla eta kolektibo guztien parte hartzea bermatzeko.

Honako atal hauek izango ditu Urteko Kudeaketa Planak:

1. Arlo bakoitzerako helburuak eta planak.
2. Jarduera nagusien aurreikuspena hurrengo ikasturterako.
3. Ikasturteko eskola egutegia.
4. Ordutegi orokorrak.
5. Langileen urteko formazio plana.
6. Kudeaketa adierazleen helburuak.
7. Hurrengo ikasturtea kudeatzeko garrantzitsua den beste edozein informazio.

3. atala. Urteko kudeaketa txostena (UKT).

**28. artikulua. Azalpen txostena (UKT).**

Musika Eskolako Urteko Kudeaketa azaltzen duen Txostena eskola ebaluatzeko tresna da. Urteko Kudeaketa Plana nola bilakatu den ebaluatuko du, eta baita ikasturtean izan diren gorabehera guztiak eta hurrengo Urteko Kudeaketa Planean jaso beharreko hobekuntza proposamenak ere. Aipatutako txostenak jasoko ditu:

- 1- Egindako berrikuntza eta hobekuntza proiektu guztiei buruzko txostena.
- 2- Egindako eskolaz kanpoko jarduera eta jarduera osagarri guztien zerrenda eta balorazioa.
- 3- Langileen prestakuntza programaren balorazioa.
- 4- Hurrengo Urteko Kudeaketa Planean sartu beharreko hobekuntza proposamenak.
- 5- Helburuen balorazioa betetzea.

6- Amaitutako ikasturtean Beasaingo Udal Loinatz Musika Eskolak eginiko ekintza guztiak jasotzeko behar bezain beste eranskin (irakasleen txostenak, matrikula datuak, sustapenak, bileren aktak, prentsan agertutako berriak,...).

4. atala. Musika Eskolako Jarduerak.

**29. artikulua. Musika Eskolako ohiko jarduerak.**

1. Ohiko irakaskuntza jarduera guztiak Urteko Kudeaketa Planak (UKP) jarritako ordutegira egokituko dira nahitaez.

### **30. artikulua. Ez ohiko jarduerak.**

1.Ez ohiko jarduerak izanez gero, instalazioak erabil litezke Musika Eskolako zuzendaritzak hartarako baimena emanaz gero, baldin eta haren helburuekin bat badatoz. Hartarako, zuzendaritzak behar beste baliabide jarriko du instalazioak eskola komunitate osoak erabili ahal izateko.

2.Urteko Kudeaketa Planean (UKP) jasotako berariazko jarraibideak beteko dira instalazioak eta materiala erabiltzeko orduan.

## **V. TITULUA**

### **MATRIKULA EGITEA ETA IKASLEAK ONARTZEA**

#### **1. atala. Matrikula.**

### **31. artikulua. Matrikula.**

1.Matrikula da izangaia Musika Eskolako ikasle bihurtzen duen dokumentu formala, eta haren bitartez bereganatuko ditu ikasleak dagozkion eskubideak eta betebeharrak.

2.Eskolan matrikula egiteko, Musika Eskolak onartutako baldintzak bete beharko dituzte pertsonak, eta baita gerora ematen diren legeek eta araudiek xedatzen dituzten beste guztiak ere.

3.Matrikula egiteko, Euskadiko Autonomia Erkidegoko berariazko musika irakaskuntza ez arautuko zentroen, Musika Eskolak, funtzionamendua erregulatzen duten arauetan jasotako irizpideak beteko dituzte ikasleek.

4.Matrikularako eta hileroko tasak ordaintzeko ezarritako epeetan ordaintzeko obligazioa ez betetzeak matrikula bertan behera uztea eta Musika Eskolako ikasle izateari uztea ekarriko du.

5.Honako irakaskuntza mota hauek jasoko dira matrikulan:

-Irakaskuntza nagusia: Instrumentuak, kantu bakarlari eta kantua taldean.

-Espezialitate ez instrumentalak: Musika Tailerra 5 edo 6 urte eta hirugarren adineko Musika Tailerra, ikastaroak, etab.

-Taldeak: Abesbatza, Banda, Instrumentu taldeak, Conboak, bikoteak etab.

-Ikasgai osagarriak: Musika Lengoaia, Harmonia, Analisia, Historia, Informatika, etab.

-Irakaskuntza Indartua: kontserbatorioetara sartzeko probak prestatzeko.

6.Pertsona bat gehienez bi espezialitatetan egongo da matrikulatua aldi berean. Taldeetan parte hartzeak ez du mugarik.

#### **2. atala. Ikasleak direnen matrikula berritzea.**

### **32. artikulua. Ikasleak direnen matrikula berritzea.**

1.Ikasleek matrikula berritzeko eskubidea izango dute, baldin eta eskolak onartutako baldintzak betetzen badituzte, bai eta ondorengo lege eta erregelamenduetan ezarritako beste edozein baldintza ere.

2.Ezin izango dute matrikula berri Musika Eskolako tasaren bat ordaindu gabe dutenek.

3.Ikasturtean zehar jasotako irakaskuntzak nabarmen aprobetxatu ez direla zehaztu bada, araudi honen 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jokatu da, eta matrikula berritzeko eskubidea galduko da, bai eta urtebetez ikasgaian sartzeko eskubidea ere.

4.Inoiz ezingo da matrikulatu beste espezialitate berri batean, matrikula berritzeko prozeduraren bidez. Espezialitate berri bat egin nahi izanez gero, matrikularik gabeko gainerako eskatzaileek bezala izenemate berria egin beharko du. Nolanahi ere, Musika Lengoaia Hastapeneko ikasleek espezialitatea aukeratu ondoren.

5.Ikasleen matrikula hurrengo ikasturterako automatikoki berrituko da ikasgairako ezarritako helburuak gaingitu dituzten ikasle guztientzat, honako kasu hauetan izan ezik:

- a) Musika Lengoaia Hastapeneko ikasleak, instrumentua aukeratu beharko baitute. Hutsik dauden plazak baino eskaera gehiago dauden espezialitateetan, zozketa egingo da.
- b) II. maila osoa egin eta III. mailan hasten diren ikasleak, ikasgai osagarriak eta talde-partaidetza aukeratu beharko baitituzte.
- c) Beste instrumentu espezialitate bat edo kantua hasi nahi duten ikasle guztiek matrikularik gabeko gainerako eskatzaileek bezala izena eman beharko dute. Eskaera horiek lehentasuna izango dute ikasle berrien aldean, baina ez Musika Lengoaia Hastapeneko ikasleen aldean, azken horiek baitute lehentasuna.
- d) Hirugarren adinekoentzako musika-tailerra, matrikula amaitutzat emango delako ikasturte amaierarekin batera, eta matrikula berria egin beharko da taldean beste ikasturte bat gehiago parte hartu nahi izanez gero.

6. Ikasleen matrikula berritzeko prozesuak fase hauek izango ditu:

- 1. Matrikula berritzeko inprimakia eta jarraitu beharreko jarraibideak jasotzea.
- 2. Datuen eguneratzea, akatsak zuzentzea eta ikasgai, talde nahiz espezialitate aukeraketa, dagokien ikasleei.
- 3. Ikasleek edo haien arduradunek matrikula onartzea.
- 4. Matrikula tasa ordaintzea.
- 5. Instrumentu espezialitateen edo kantuen ordutegiak esleitzea.

1. kapitulua. Matrikula berritzeko inprimakia eta jarraitu beharreko jarraibideak jasotzea.

### **33. artikulua. Matrikula berritzeko inprimakia eta jarraitu beharreko jarraibideak jasotzea.**

1. Matrikula berritzeko prozesurako beharrezkoa den informazioa bidaliko die Musika Eskolak ikasleei, honako hauek zehaztuta:

- Akatsak zuzentzeko epea,
- Ordaindu beharreko matrikulazio-tasa,
- Matrikulazio-tasa kargatzeko epea,
- Matrikula onartzeko modua,
- Hurrengo ikasturteari dagokion inprimakia, honako hauek jasoko dituen:
- Ikaslearen datu pertsonalak,
- Irakasgai osagarrien esleipena,
- Irakasgai horien taldea eta ordutegia,
- Datorren ikasturteari dagokion espezialitatearen maila.
- Epezialitate instrumentalen eskaintza, M.L.Hastapeneko ikasleentzat, hain zuzen ere.

- Irakasgai osagarrien eskaintza, III. mailara igarotzen diren ikasleentzat, hain zuzen ere.

2. kapitulua. Datuen eguneratzea, akatsak zuzentzea eta ikasgai, talde nahiz espezialitate aukeraketa.

### **34. artikulua. Datuen eguneratzea, akatsak zuzentzea eta ikasgai, talde nahiz espezialitate aukeraketa.**

1. Musika Eskolak zehazten duen epealdian, ikasleek datu pertsonalak eguneratu edo zuzendu beharko dituzte.

2. Epe berean, Musika Lengoaia Hastapeneko ikasleek bi instrumentu espezialitate edo kantua aukeratu beharko dituzte eskaintzen zaizkien aukeren artean, lehentasunaren arabera. Hutsik dauden plazak baino eskaera gehiago dauden espezialitateetan, zozketa egingo da ikasle edota tutoreekin batera aurrez aurre.

3. Aldi berean, III.1 mailara igarotzen diren II.4 mailako ikasleek eskaintzen zaizkien ikasgai osagarrien artean aukeratu beharko dute, bai eta talde instrumental nahiz koral partaidetza ere.

4. Epe berean, ikasleek taldez aldatzea eskatu ahal izango dute, eta aldaketa hori Musika Eskolak ezarritako irizpideei jarraituz egingo da.

3. Kapitulumua. Ikasleek edo haien legezko tutoreek matrikula onartzea.

**35. artikulua. *Ikasleek edo haien legezko tutoreek matrikula onartzea.***

1. Ikasleek edo haien legezko tutoreek, 35. artikuluan aipatutako aldaketak ebatzi ondoren, matrikula onartu beharko dute, eta Musika Eskolak zehaztutako moduan berretsi beharko dute.
2. Matrikula onartzeak ikasturte osoa ordaintzea dakar, 10 tasatan banatuta.

4. Kapitulumua. Matrikula-tasa ordaintzea.

**36. artikulua. *Matrikula-tasa ordaintzea.***

1. Ezarritako epean, tasa ordainduko da, kontuan zordunduta.
2. Matrikula berresten ez bada edo ezarritako epean ordaintzen ez bada, plaza izateko eskubidea galduko da.
5. Kapitulumua. Espezialitate instrumentalaren edo kantuen ordutegiak esleitzea.

**37. artikulua. *Espezialitate instrumentalaren edo kantuen ordutegiak esleitzea.***

1. Eskolak zehazten duen epealdian, instrumentu espezialitateen edo kantuko ikasleek beren irakasleekin adostuko dute hurrengo ikasturterako klaseen ordutegia.
2. Aurreikusi gabeko arrazoiengatik gerta daitezkeen ordutegi-aldaketak irailean aztertuko dira, hurrengo ikasturtearen hasieran, irakasleekin batera.

3. atala. Ikasle berriak onartzea.

**38. artikulua. *Ikasle berriak onartzeko faseak.***

Prozesuak honako faseak ditu ikasle berriak Musika Eskolan onartzeko:

- 1- Hezkuntza Eskaintza - plaza hutsak.
- 2- Matrikula eta matrikulazio Tasaren ordainketa.
- 3- Maila jakiteko probak.
- 4- Plazak esleitzea.
- 5- Instrumentu nahiz kantuko ordutegiak aukeratzea.
- 8- Itxarote zerrendak.
1. kapitulumua. Hezkuntza Eskaintza - plaza hutsak.

**39. artikulua. *Hezkuntza Eskaintza - plaza hutsak.***

Ikasleak diren matrikula-prozesua amaitutakoan, Musika Eskolak Hezkuntza Eskaintza iragarriko du, plaza hutsak dauden espezialitateak adieraziz. Irizpide nagusia instrumentuen arteko oreka mantentzea izango da, Eskolak talde instrumental edo koral desberdinak antolatze gaitasuna izan dezan.

2. kapitulumua. Matrikula eta matrikulazio Tasaren ordainketa

**40. artikulua. *Matrikula eta matrikulazio Tasaren ordainketa.***

1. Eskolak epealdia jarriko du, nahi dutenek Musika Eskolan ikasteko eskaera egin dezaten.
2. Matrikula egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa:
  - Familia Liburuaren edo nortasuna egiaztatze agiriren baten (NA, pasaporte edo baliokidea) fotokopia.
3. Eskolan sartu nahi dutenek izena emateko inprimakian adierazitako informazioa eman beharko dute. Nahitaezko informaziorik ematen ez bada edo informazio hori faltsua bada, prozesutik kanpo geratuko da, sor daitezkeen erantzukizunei kalterik egin gabe.
4. Ezin izango dute izena eman, Eskolako ikasleak izanda, Tasaren bat ordaindu gabe dutenek, harik eta beren egoera erregularizatu arte.

5.Eskatzaileek bi taldetan sailkatu beharko dituzte espezialitateak edota irakasgaiak: lehen aukera edo bigarren aukera. Sailkapen honek plaza hutsak esleitzeko prozesuan izango du eragina. Gehienez ere bi espezialitatetan sartzeko eskatu ahal izango da. Aldez aurreko ezagutza eskatzen duen ikasgairen baterako plaza eskatu nahi izanez gero, mailako edota Musika Lengoaiaiko proba bat egin beharko da.

6. Ezarritako epean, tasa ordainduko da adierazten den kontuan diru sarrera eginaz.

7.Matrikula berresten ez bada edo ezarritako epean ordaintzen ez bada, plaza izateko eskubidea galduko da.

3. kapitulua. Maila jakiteko frogak.

#### **41. artikulua. Maila jakiteko frogak.**

1.Maila jakiteko probaren bidez egiaztatuko da hautagaiak badituela eskatutako irakaskuntza mailan egoki hasteko beharreko gaitasunak.

2.Maila jakiteko frogak soilik baloratu dira Gaingitua edo Ez Gaingitua kalifikazioekin. Maila berdina duten pertsonen artean lehentasun ordena zehazteko, izenemate ordena hartuko da kontuan.

3.Musika Eskolak eskatzailearen izenemateko maila aldatu ahal izango du, proban erakutsi duen mailaren arabera.

4.Musika Eskolak, curriculumak edo egiaztagirak ikusita, maila jakiteko probatik salbuesteko erabakia hartu ahal izango du.

4. kapitulua. Plazak esleitzea.

#### **42. artikulua. Plazak esleitzea.**

Plazen esleitzea izenemate ordenaren eta hutsik dauden plazen arabera egingo da.

5. kapitulua. Espezialitate instrumentalak edo kantuko ordutegiak aukeratzea.

#### **43. artikulua. Espezialitate instrumentalak edo kantuko ordutegiak aukeratzea.**

Musika Eskolak zehazten duen epealdian, kantu edo instrumentu espezialitateetako ikasle berriek beren irakasleekin adostuko dute hurrengo ikasturterako ordutegia. Ahalegina egingo da ordutegi eskaintza egokitze, kontuan hartuz ikasle gazteenei dagozkien adin tarteak eta bizilekua Musika Eskolarekiko.

6. kapitulua. Itxarote zerrendak.

#### **44. artikulua. Itxarote zerrendak.**

1.Ikasle berriak Musika Eskolan sartzeko prozesua amaitu ondoren, espezialitate batean ere plazarik lortu ez duten pertsonen eskaera guztiak eskatutako ikasgai bakoitzerako itxarote-zerrendetan sartuko dira.

2.Taldeko ikasgai, instrumentu espezialitate edo kantuko ikasgai bakoitzeko itxarote-zerrenden lehentasun ordena izenemate ordenak zehaztuko du hurrenez urren.

3.Hutsik geratzen diren lanpostuak, ezarritako lehentasun ordenari jarraituz, eskaintako plazaren ezaugarriak (adina, ordutegiak, maila edota ezartzen diren beste batzuk) betetzen dituen itxarote-zerrendako lehen pertsonari eskainiko zaio.

4.Instrumentu espezialitateetako plazarik irailaren 30era arte eskainiko dira. Ikasturtean zehar ustezko baja eskaeraren bat betetzeko plazarik eskaini ahal izango dira, gehienez ere martxoaren 31ra arte.

5.Plazarik baldintza espezifiko batzuekin eskainiko dira (irakasleak, ordutegiak), eta Musika Eskolak ez du horiek aldatzeko inolako betebeharririk izango.

6.Ikasgai osagarrietako plazarik soilik irailaren 30era arte eskainiko dira.

4. Atala. Irakasleak aldatzea.

#### **45. artikulua. Irakasleak aldatzea.**

1. Ikasleek instrumentu espezialitateko, kantuko edo ikasgai osagarriko irakasleak aldatzeko eskatu ahal izango dute, ikasturtea hasi aurretik.
2. Eskabideak ebazteko orduan, lehentasuna izango dute irakaslearen oniritziarekin egindako arrazoi pedagogikoetan oinarritutako eskaerek.
3. Antolaketa edota pedagogia arrazoiengatik, Musika Eskolak irakasle aldatetak egin ahal izango dizkie ikasleei, nahiz eta ez eskatu.
4. Musika Eskolak ez du eskabide horiek onartzeko betebeharririk izango, lanpostu hutsak egon arren.

### **VI. TITULUA**

#### **EGOITZA, MATERIALA ETA INSTRUMENTUAK ERABILTzea**

1. atala. Instalazioak erabiltzea.

#### **46. artikulua. Instalazioen erabilera.**

1. Musika Eskolako instalazioen lehentasunezko erabilera irakaskuntza jarduerarena izango da, taldeen entseguak ere barnean hartuta.
2. Musika Eskolako langileek, ikasleek eta eskatzen duten herritarrek instalazio horiek erabili ahal izango dituzte arte diziplinak ikasteko eta entseguak egiteko. Debekatuta dago behar bezala baimenduta ez dagoen jarduerarik gauzatzea (eskola partikularrak, jarduera ekonomikoak, musikarekin lotuta ez dauden bilerak...).
3. Nolanahi ere, Musika Eskolak alde bakarretik aldatu ahal izango du ikasgelen erabilera ordutegia bere jarduera (klaseak, entseguak, entzunaldiak, etab.), behar bezala bideratuko dela bermatu ahal izateko, eta kalteturiko erabiltzaileak ez du inolako kalte ordainik jasoko horregatik.
4. Zuzendaritzak eskaerak ebatziko ditu eta beharreko neurriak hartuko ditu zerbitzuak behar bezala funtzionatuko duela bermatzeko. Era berean, lehentasunak zehaztuko ditu batera gertatzen diren jarduerak daudenean.

#### **47. artikulua. Betebeharrak.**

Honako konpromiso hauek hartu eta betebeharrak hauek izango dituzte Eskolako ikasgelen erabiltzaile guztiek:

- 1- Baimendutakoarekin bat datorren erabilera egokia egitea. Bereziki debekatzen da erretzea, jatea, edatea eta zikintzea, eta ikasgela baldintza onetan geratu beharko da, gerora behar bezala erabili ahal izateko.
- 2- Eskolako Administrazioari jakinarazi behar diote ikasgela edozein irregulartasun aurkitu badute.
- 3- Dagoen materiala gaizki erabiltzeagatik hondatzen bada, berritu edo eragindako kalteak ordaindu beharko dituzte.

#### **48. artikulua. Ukatzeko arrazoiak.**

Instalazioak erabiltzeko baimena ukatzeko arrazoi izango dira:

- 1- Ezarritako Tasak ez ordaintzea.
- 2- Ikasgela edozein irregulartasun aurkituz gero ez jakinaraztea.
- 3- Utzitako ikasgelak baimendutakoa ez den beste erabilera baterako erabiltzea.
- 4- Musika Eskolako arauak ez errespetatzea.
- 5- Sexu arrazoigatik falta edo delitua egiteagatik zigor administratibo edo penala jaso izana.

#### **49. artikulua. Eskolako langileak.**

- 1- Musika Eskolako langileek instalazioak erabili ahal izango dituzte beren lana prestatzeko, ikasteko, arte jarduerak prestatzeko.

2-Era berean, langileak Musika Eskolako ohiko ordutegitik kanpo joan ahal izango dira instalazioetara, emango zaion txartel elektronikoa erabiliaz, ateak irekitzeko beharrezko baimenak izango dituenak, hain zuzen ere. Indarrean dagoen segurtasun araudia bete beharko du.

**50. artikulua. *Ikasleek instalazioak erabiltzea ikasteko edo entseguak egiteko.***

1-Ikasleek Musika Eskolako bakarkako ikasgelak erabili ahal izango dituzte ikasten ari diren instrumentua ikasteko. Era berean, ikasleek taldeen ikasgelak erabili ahal izango dituzte ikasgaiarekin loturiko talde entseguak egiteko. Ikasgelen erabilerak ez du matrikulaz gain inolako tasa gehigarriarik eragingo.

Instalazioak Musika Eskolaren ordutegitik kanpo erabili behar dituzten ikasleei horretarako programatutako txartel elektronikoa eman ahal izango zaie.

**51. artikulua. *Herritarrek instalazioak eta instrumentuak erabiltzea ikasteko edo entseguak egiteko.***

1.- Musika Eskolatik kanpoko pertsonak, bai ikasleekin bai beren kontura, instalazioak erabiltzeko eskubidea izango dute, musika ikasteko edo beste edozein helburutarako, araudi honetan xedatutakoa betez.

2.- Horretarako, Musika Eskolako zuzendaritzari zuzendutako eskabidea egin beharko da, eta honako hauek jasoko ditu:

a) Instalazioak erabiliko dituzten pertsonen identifikazioa, izena, abizenak, helbide elektronikoa eta telefonoa adieraziaz.

b) Arazoak, kalteak, etab. gertatuz gero, erantzulearen identifikazioa.

c) Instalazioak zertarako erabili nahi diren.

d) Araudi hau ezagutzen dela adieraztea eta onartzea.

3-Eskaerari gehienez ere astebeteko epean erantzun behar da.

4-Erabilerak baimendu ondoren, eskabidean adierazitako egoeren bat aldatzen bada, beste bat egin beharko da, eta instalazioak ezingo dira erabili azken hori ebatzi gabe.

**52. artikulua. *Instalazioak Udaleko beste Arloek edo beste Erakundeek erabiltzea.***

1.- Udalaren beraren politika eta administrazio organoek instalazioak erabili ahal izango dituzte, Musika Eskolako zuzendaritzak baimena eman ondoren.

2.- Instalazioen erabilerak ere erraztuko da, ezartzen diren baldintzetan, ikastaroak edo tailerrak egiteko edo Musika Eskolen Elkarteko (EHME), elkarteari lotutako musika eskoletako eta ikastetxeetako bilerak egiteko.

3-Salbuespen gisa, instalazioak erabiltzeko baimena eman ahal izango zaie auzo elkarteei, kultura elkarteei eta merkatari elkarteei bilerak egiteko.

**53. artikulua. *Musika Eskolak beste instalazio batzuk erabiltzea.***

Musika Eskolak, bere instalazioez gain, bere misioa gauzatzeko beharrezkoak direnak erabiliko ditu.

2. atala. Materiala eta instrumentuak erabiltzea Musika Eskolatik kanpo.

**54. artikulua. *Ikasleek, herritarrek edo beste erakunde batzuk materiala edo instrumentuak Musika Eskolatik kanpo erabiltzea.***

1.- Instalazioak bezala, materiala eta instrumentuak erabiltzeko baimena eman ahal izango zaie ikasleei, herritarrei edo beste erakunde batzuei, musika jardueretarako, hain zuzen ere.

2-Eskaera guztiak idatziz egin beharko dira, ezarritako tasak ordainduta. Matxuraren bat gertatuz gero, baimendua arduratuko da konponketaz eta bere kostuaz.

**55. artikulua. *Musika Eskolako langileek edo Udaleko sailek bere horretan, materiala eta instrumentuak Musika Eskolatik kanpo erabiltzea.***

- 1.- Instalazioak bezala, materiala eta instrumentuak erabiltzeko baimena eman ahal izango zaie Musika Eskolako langileei eta Udaleko beste Sailei, musika jardueretarako, hain zuzen ere.
- 2-Eskaera guztiak idatziz egin beharko dira eta bere garaian ezarritako protokoloak jarraitu beharko dira. Musika Eskolako langileek eta Udaleko Sailek ez dute tasarik ordaindu beharko. Matxuraren bat gertatuz gero, baimendua arduratuko da konponketaz eta bere kostuaz.

#### **Xedapen indargabetzaileak.**

Antolaketa eta Funtzionamendu Araudi hau indarrean sartzean, 2001eko otsailaren 19ko Beasaingo Loinatz Musika Eskola Publikoaren Barne Araudia indargabetuta geratzen da. (GAO 2001-02-19)

#### **Indarrean jartzea.**

Antolaketa eta Funtzionamendu Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.”

#### **4.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK. 2020ZEBO0071**

a.- ARGITERIA PUBLIKOKO INSTALAZIOEN ETA ERAIKINETAKO INSTALAZIO ELEKTRIKOEN OINARRIZKO KONTSERBAZIO, ZAINTZA, KONPONKETA ETA BERRIKUNTZA ZERBITZUAK, UDAL GIS PLATAFORMAREN EGUNERATZE ETA MANTENTZE ZERBITZUA, EKITALDIEN INSTALAZIO ELEKTRIKOA, AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA, BAI ETA HORIEK MANTENTZEKO BEHARREZKOAK DIREN MATERIALEN HORNIDURA ETA ESKAEREN KUDEAKETA ERE. BALDINTZA PLEGUAK ONARTZEA ETA DEIALDI PUBLIKOA EGITEA.

Ezagutzera eman dira lizitazioaren xehetasunak:

**“Lehenik.** Argiteria publikoko instalazioen eta eraikinetako instalazio elektrikoen oinarritzko kontserbazio, zaintza, konponketa eta berrikuntza zerbitzuak, udal GIS plataformaren eguneratze eta mantentze zerbitzua, ekitaldien instalazio elektrikoa, aholkularitza eta laguntza teknikoak, bai eta horiek mantentzeko beharrezkoak diren materialen hornidura eta eskaren kudeaketa ere. Baldintza pleguak onartzea eta deialdi publikoa egitea.

1.- Prozedura: irekia publizitatearekin eta harmonizatua. Lizitazio elektronikoa.

2.- Izapidetzea: arrunta.

3.- Lizitazio prezioa/urteko. Guztira: 137.960,65 € + BEZ

Lizitazio prezioa formulatzeko 3 modu ezartzen direla kontuan hartuz, horietako bakoitzerako kontratuaren balio zenbatetsia hau izanen da:

1.- kontratuaren xedearen 1. eta 2. zerbitzuak:

Gastuaren gehieneko muga

**22.487,99 €**

gehi BEZA

2.- kontratuaren xedearen 3,4,5,6 eta 7 zerbitzuak:

*Kontratuaren xedean deskribatutako 3,4,5,6 eta 7 zerbitzuak gauzatzeko unitate-prezioak, BEZaren AURRETIK, lanbide-kategoriaren, lanaldi-motaren eta jasogailuaren arabera*

|                                                           |                  |                 |
|-----------------------------------------------------------|------------------|-----------------|
| 1. mailako ofiziala, eguneko lanaldian:                   | <b>30,01 €/h</b> | <b>15 PUNTU</b> |
| 1. mailako ofiziala, gaueko lanaldian:                    | <b>36,01 €/h</b> | <b>5 PUNTU</b>  |
| 1. mailako ofiziala, igandeko eta jaiegunetako lanaldian: | <b>42,02 €/h</b> | <b>5 PUNTU</b>  |
| Ingeniari elektrikoa, eguneko lanaldian:                  | <b>37,68 €/h</b> | <b>2 PUNTU</b>  |
| Jasogailuaren prezioa orduko:                             | <b>30,00 €/h</b> | <b>8 PUNTU</b>  |

Gastuaren gehieneko muga

**51.259,15 €**

gehi BEZA

3.- Materialen hornidura. Eskaerak kudeatu, jaso eta kontrolatzeagatik hornitutako materialaren unitateko prezioen gaineko **gehikuntzaren % 10**

**64.213,50 €**

Gastuaren gehieneko muga

gehi BEZA

4.- Egikaritze epea: Hiru urte + beste bi luzapen (bakoitza urte bete)

5.- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:

*Urteko negozio bolumena kontratuak xede duen esparruan, hau da, instalazio elektrikoen mantentze-lanak, eskuragarri dauden azken 3 ekitaldietako negozio bolumen handieneko urteari dagokionez, lizitatzailaren jardueren sorrera edo hasiera daten arabera eta eskaintzen aurkezpen daten arabera, 207.910,12 € izango da gutxienez. Urteko negozio-bolumena egiaztatzeko, onartutako eta Merkataritza Erregistroan gordailatutako urteko kontuak aurkeztu beharko dira, eta, erregistroan inskribatuta ez badago, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututako kontuak aurkeztu beharko dira. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko banakako enpresaburuaren kasuan, haien negozio-bolumena egiaztatuko dute, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuaren eta urteko kontuen bidez.*

6.- Kaudimen teknikoa:

- a) Azken hiru urteetan zehar egindako lan eta zerbitzu garrantzitsuenen zerrenda, kontratu honen xedea osatzen duten zerbitzu edo lanen antzekoak. Gutxienez 97.024,72 €-ko (BEZik gabe) zenbatekora (kontratuaren urteko batez bestekoaren % 70) iritsi beharko du zenbatekoak urterik onenean, eta behar bezala azalduko dira zenbatekoak, datak eta lan edo zerbitzu horien hartzaile publikoa edo pribatua.

Zerbitzu bat kontratuaren xedea den izaera bereko edo antzekoa den zehazteko, ezaugarrien koadro honetako 2. atalean adierazitako CPV koderak jo beharko dira.

- b) Kontratuaren Arduradunaren identifikazioa eta titulazioa (Graduko titulua edo lizentziatura, Ingeniaritza teknikoa edo goi mailako ingeniari titulua, goi mailako modulua edo LH2 adar elektrikoan, antolaketan edo antzekoan).
- c) Enpresa lizitatzailerak instalatzaile-txartela duten langileak dituela egiaztatzen duen agiria, Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren 042 Jarraibidean xedatutakoaren arabera, dagokion erakundean behar diren instalatzaile-buletinak sinatzeko eta/edo igortzeko gaitzen duena.
- d) *Enpresa lizitatzailerak Industria Ordezkaritzako Behe Tentsioko Mantentzaileen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.*

*7.- Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Euskadiko kontrataziorako plataforman.*

*8.- Proposamen ereduak: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.*

*9.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, Europa Batasuneko Aldizkari Ofizialera iragarkia bidaltzen denetik kontatzen hasita 35 eguneko epean.*

*10.- Adjudikazio irizpideak:*

*Balorazio automatikoa:*

- Oinarrizko kontserbazio-lanetarako eta erreten-zerbitzurako urteko prezioa: 20 puntu.*
- 1. mailako ofizial, ingeniari elektriko eta jasogailuen eskulanaren prezioa : 35 puntu.*
- Eskaerak kudeatu, jaso eta kontrolatzeagatik hornitutako materialaren unitateko prezioen gaineko gehikuntzaren %: 10 puntu.*

*Balorazio ez automatikoa:*

- Memoria: 35 puntu.*

*11.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea Euskadiko kontrataziorako plataforman argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*

*12.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailerak administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.*

*13.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak*

- Enpresak bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzeko neurriak eskaini beharko dizkie langileei.*

*- Enpresak lantokiko prestakuntza bultzatu beharko du.*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Nosotros queremos incidir sobre el control del cumplimiento del convenio colectivo y también en el que se tenga en cuenta la conciliación laboral porque se está proponiendo un servicio, 24 horas. Estamos de acuerdo."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Para calcular el precio de licitación se ha tenido en cuenta lo que comentas. Una persona no puede cubrir las 24 horas y de ahí viene el incremento del precio. El convenio es de 2011 pero se le ha incrementado el IPC de cada año. Pensamos que cumplimos el convenio y que desde ese punto de vista no tendremos problemas. Hay otros municipios que han licitado concursos parecidos y el precio hora que nosotros hemos previsto es superior."

Beasaingo EH Bilduren ordezkariak ere adostasuna azaldu du proposamenarekiko.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

## **5.- MOZIOA. 2020IDBO0035**

### **SAHARAREN ALDEKO MOZIOA, Beasaingo EH Bilduk AURKEZTUTAKOA**

Alkate jaunak, Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bilduk) andreari hitza eman dio eta mozioaren berri eman du:

"1975eko azaroaren 14an, duela 45 urte, "Espainiaren, Marokoren eta Mauritaniaren artean Mendebaldeko Saharari buruzko printzipio-adierazpena" izeneko dokumentua sinatu zen Madrilén, "Madrilgo hiruko akordioak" izenez ezagutzen dena, eta Mendebaldeko Saharako herria behartutako lekualdatzera eta Marokoko Erresumak bere lurak legez kanpo okupatzera kondenatu zuten.

Madrilgo akordioak ez zuen balio legalik, Saharako aldearen presentziarik gabe sinatu baitzen. Akordio horietan xedatutakoaren arabera, lurraldeko administrazioa hainbat neurriren mende zegoen, eta neurri horien indarraldia 1976ko otsailaren 26an amaituko zen. Gainera, horrek Nazio Batuen Erakundea traizionatzea zekarren, ez baititu Madrilgo akordioak onartzen, Mendebaldeko Sahararen estatusari buruzko jarrera desberdina duelako; izan ere, lurralde ez-autonomoen eta deskolonizatzeko dauden lurraldeen zerrendan sartzen du.

Estatu espainiarrak, Nazio Batuen presioa gora-behera, Mendebaldeko Sahararen deskolonizazio prozesua atzeratzen joan zen, Maroko lehenik eta geroago Mauritania lurralde honen inguruko aldarrikapenak areagotzen joan zedin, Hagako Nazioarteko Justizia Gorteak inolako eskubiderik ez zutela ebatzi zuelarik. Auzitegi horrek saharar herriari autodeterminaziorako eskubide besterenezina ahalbidetzeko eta bere etorkizuna erabakitzeke hitza emateko beharra ezarri zuen.

Bestalde, Nazio Batuek MINURSOri agindu bat eman zioten, baina ez du bete, eta Marokoko Erresumaren alde egin zuen. Gainera, ez zuen eskumena eman giza eskubideen zaintzan, eta, beraz, ez zuen segurtasuna bermatu eremu horretan.

Fronte Polisarioak Marokotik Guerguaterara, Mauritaniako mugara, indar militarrek bidali izana salatu du iragan asteetan. Ekintzaile sahararrek kanpaldia egin zuten zonaldean, lurraldean legez kanpo zeuden tropa marokoarren irteera eskatzeko, Nazio Batuek Bake Akordioan (1988) eta Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko akordio militarretan jasotzen den bezala, bertan debekatzen baitzen Marokoko harresi militarrean pasabideak irekitzea.

Azaroaren 13an, Marokoko Erresumak Fronte Polisarioarekin 1991n sinatutako su-etena urratu zuen. Fronte Polisarioak saharar biztanleria zibila babesteko erasoari aurre egin zion, eta su-eten akordioaren amaiera iragarri zuen.

Beraz, lurralde osoan gerra-egoera ezarri da. Espainiako Gobernuak, Mendebaldeko Sahara, deskolonizatzeko zain dagoen Afrikako kontinenteko azken lurralde ez-autonomoaren, de iure administratzaile gisa, saharar herritarren segurtasuna zaintzeko erantzukizuna du, eta MINURSOrekin batera, saharar herriaren autodeterminazio-erreferenduma betearazteko agindua.

Illo horretan, euskal erakundeak eta gizarte zibila lanean ari gara Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin, Saharako herriaren eskubide legitimoen defentsan erreferente izaten jarraitzeko.

Arestian aipatutako guztiagatik, udal honek:

1. Elkartasuna eta babesa adierazten die Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoari, SEAD, eta Fronte Polisarioari.
2. Marokoko Erresumak 1991n Fronte Polisarioarekin sinatutako su-etenaren apurketa salatzen du. Horren harira, Saharako Gobernuak erasoari emandako erantzuna babestu du. Fronte Polisarioa babesten jarraituko du, bere lurraldearen subiranotasuna eta saharar biztanleria zibila babesteko hartzen dituen erabakietan.
3. Nazio Batuen ebazpenen arabera, saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea defendatzen du, eta Marokoko Erresumak saharar lurraldearen legez kanpo okupazioa salatzen du.
4. Mendebaldeko Saharan erreferenduma egiteko MINURSOren agindua ez betetzea salatzen du. Eta Nazio Batuen Batzar Nagusiari eskatzen dio bere gain har dezala dagokion erantzukizuna, eta ondorioz, aplikatzea saharar herriaren subiranotasunaren aldeko eta Marokoko Erresumak saharar biztanleria zibilar egindako giza eskubideen urraketa sistematikoa salatzeko onartu dituen ebazpenak.
5. Mendebaldeko Sahararen de iure administratzaile gisa duen erantzukizuna bere gain hartzera, eta horren arabera jokatzeko eskatzen dio Espainiako Gobernuari, parte aktiboa izan dadin saharar herriarentzako erreferenduma lortzeko eta saharar biztanleria zibila babesteko.
6. EBko erakundeei SEAD eta Fronte Polisarioa defendatzeko eskatzen die, saharar herriaren eskubide legitimoen defentsan aktiboki parte hartuz.
7. Berretsi egiten ditu saharar herriaren askatasunaren alde eta Marokoko legez kanpoko okupazioaren aurka onartutako adierazpen instituzionalak eta gainerako akordioak.
8. Nazioarteko komunitatea saharar herria defendatzera deitzen du, Saharako Estatu independenteak eskualdean oreka eta egonkortasunerako faktore gisa duen garrantzia aldarrikatuz.

9. Kezka berezia adierazten du lurralde okupatuetan bizi diren zibil saharauekiko. Ildo horretan, Europako erakunde eta gobernuei eta NBERi eskatzen die giza eskubideen arloko behaketa-ordezkaritzak bidal ditzatela. “

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Esan, kexak jaso ditugula kioskoan jarri dugun banderagatik. Erantzun zaie Udala osatzen dugun alderdiok bat egiten dugula. Jakin badagoela jendea beste sentsibilidade bat adierazte duena udalean.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, ez da inolako adierazpenik egin

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da.

## **5.- BERRI EMATEA:**

Ondorengo ebazpenen berri eman da:

- 2020ko urriaren 26tik 2020ko azaroaren 22rarte emandako Ebazpenak.
- Kontratu txikiei buruz, 2020ko urriaren 26tik 2020ko azaroaren 22rarte emandako Ebazpenak.

## **7.- ESKAERA ETA GALDERAK**

### **ALKATEAREN KARGU UZTEA**

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Azkeneko udalbatzan Mikel Olanok esan zuen nire kargua uztea dela eta gure alderdiko aldizkari baten azaltzen zela. Zalantzan jarri nuen eta berresten dut horrela dela.”

### **BABES GABEKO EGOERA**

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “En la Junta de Portavoces como en la comisión, por parte de Bildu se dió a conocer la situación de desamparo en la que se encuentra una mujer. Se indicó que en esos casos se aconsejaba venir al Ayuntamiento para prestar la atención y ayuda que se precise. Hemos recibido una crítica por parte de algunos vecinos en relación a la situación de esta persona porque al parecer vino al Ayuntamiento y no pudo tener acceso porque se le impidió la entrada. En estos momentos son los vecinos quienes le han provisto de algunas cosas.”

Malu Vallés Fernández (EAJ-PNV): “Este tema lo comenté en comisión y tratándose de una mujer perfectamente identificable en un entorno de hombre atenta a su intimidad personal que tratemos de ella en este pleno. Cualquier información que deseis al respecto, privadamente os la traslado.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Azpimarratu bozeramaile batzordean aipatu nuena. Ez gara zain egoten horrelako jendea dagoenean noiz etorriko. Normalean, udaltzainek edo gizarte sailekoek beraiengana joaten dira."

## KONTRATU TXIKIAK

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo Eh Bildu): "Partida bat azalzen da, haur eta gazteen artean, euskara sustatzeko 6.000,00 €koa. Jakin nahi dugu hori zer den."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Begirale ikastaroa da. Apuntutzen den jendearen arabera da gastua."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo Eh Bildu): "Igartza Musika antolatzekeo partida bat dago 5.000,00 €koa pertsona bati ordaintzen zaiona."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Bai hori horretarako da."

## WEB ORRIARI EMATEN ZAION SALAKETA

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo Eh Bildu): "Aurreko plenoan horri buruz salaketa bat egin genuen eta esan zen pleno honetan erantzungo zitzagula. Ez dakit begiratu duzun. Kezkatze diguna da horrelako erabilpema ematen bazaio gure kalterako dela. Adibidez gaur aurka bozkatu dugu eta titular erraza izan daiteke. Horrelakoak saihestu egin behar dira."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Nik bergiratu dudanagatik, beti ildo berdina jartzen da. Proposamena egiten da eta gero aurkakoak eta kontrakoak azaltzen dira. Inoiz ez dira xehetasunik ematen botoaren arrazoia azaltzeko. Guk ere erantzunak ematen ditugu, nahiko genituzkeenak ateratzea eta ateratzen ez direnak. Orokorrean behintzat horrela jokutzen da."

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo Eh Bildu): "Beno orokorrean izango da baina guk jarritako adibideetan ez da horrela izan. Web orrian herritarrei informazioa emateko azaltzen da. Esplikutzen da gobernu taldearen jarrera eta ez oposizioa bi alderdiena. Guk esan nahi genuen ez dela zuen web orria."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Ildoa hori da eta ez dago beste intentziorik. Hika mikak izten ditugunean eta guk haratago arrazoiak ematen ditugunean, horiek ere ez dira azaltzen."

## ARKITEKTOA

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Azkeneko plenoak arkitektoaren kontratazioari eman zitzaigun informazioa harritu egin gintuen. Esan zitzaigun EH Bildun gobernuan egon zenean aukera izan zela arkitekto plaza plantilan sartzea proposatzeko. Badirudi proposatu zela, arkitektoa, informatikaria eta komunikazio arduraduna eta ez zela onartu. Beraz, emandako informazioa ez zen zuzena izan."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Aktak hor egongo dira. Nik ez dut gogoratzen proposamenik egin zenik."

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Guri esan zaigu idazkariak egiten zituela hirigintzako txostenak eta horren arira sartu zela arkitektoarena baina batzordean gehiengorik ez zegoenez, ez zela aurreikusi.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Barrura zer egin zen ez dakit, baina proposamenak ziur jasotzen direla. Guk ez genuen, orain dagoen bozemaile batzorderik gaiak informalki tratatzeko. Guk batzordeetara joaten ginen bakarrik eta ez daukat buruan horrelako proposamenik egin zenik. Zuek esaten duzue kontratazioak oposizio bidez egin behar direla eta zer da, egiten ari garena?. Iruditzen zait hor ere zorrotasuna behar dela, bestela ematen du “a dedo” egiten ari garela eta hori ez da horrela. Gu gaudela behintzat, sartu dena oposizioz sartu da.”

Eta tratatzeko besterik ezean bilera arratsaldeko zortziak eta hogeita hamabostetan amaitu da eta nik idazkari naizen honek, akta hau idatzi et sinatu dut.